

TOKIKOM

2015eko urria | 152. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria

Nagusien
eskola





san martinak

2015



Parte hartu jaietan!
Jaiak euskaraz bizi!



ARTEAGA & EROTA
JATETXEA

Ospatu gugaz
Sanmartinak

Azaroak 7 eta 8,
menu bereziak

Azaroak 13 eta 14,
mortzila-janak

Arteaga Auzoa, 63
48170 ZAMUDIO
94 452 10 30
restaurant@arteagayrota.com
www.arteagayrota.com

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*



LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**



**ARAMENDI
DASTALEKUA**

TARTAK
PASTELAK
ENKARGUZ

Oiz, 6
48170 ZAMUDIO
94 452 20 49



BAR TXIKI


ESPEZIALITATEA: TORTILLAK

Lehendakari Ietzaola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 68



Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Gabriel Etxebarria
-  **12** Gurean izan da... Amets Arzallus, bertsolaria
-  **14** Baserri Antzokiaren lehen harria ipinita
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Helduen Hezkuntza
-  **21** Zamudioko San Martin jaiak
-  **24** Bertoko taldearen 20. urteurrena
-  **26** Emakume baserritarrak... Txaro Elorriaga
-  **28** Goi-Alde dantza taldeak, 50 urte
-  **30** Elkartek... Zizegorri mikologia elkartea
-  **32** Txorierri ezagutu... Larrabetzu eta burdina
-  **34** Teknologia... Etorkizuneko pilulak
-  **35** Aikorrizketa... Baserri Antzokia, Arkadia berria
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



14 Baserri Antzokia



21 Zamudioko San Martin jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa

(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)

Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35

aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Joseba Butroe, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Haritz Petralanda, Joserra, Sabin Arana, Xabier Díaz, Jose Angel Mentxaka, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-en edota eritxien erantzukizunik.

Duela 2.500 urte inguru, Grezian, gure mendebaldeko kulturaren gurasoek dena behatzen zuten: zerua eta lurra, gizakia eta natura. Unibertsoak sorrarazten zien harridura eta ezagutzeko gosea ziren jakintzaren motorra. Horrela hasi zen pentsamendu arrazionala, eta gizakiaren eboluzio zibilizatua. Denbora hartuta.

Duela 500 bat urte edo, filosofia eta zientzia banandu egin ziren. Gizakiaren ingurua ezagutu eta eraldatzea bilakatu zen jakintzaren helburu eta funtsa. Eta horrela joan zen garatzen pentsamendu zientifikoa, hainbat urtetan zehar.

Duela 100 urtetik hona, zientzia eta teknologia banaezinak dira jadanik, eta hasierako aurrerakuntza itzelak handitzen eta zabaltzen joan ziren etengabe: espazio-ontziak asmatu, giza genoma aurkitu, nekazaritza intentsiboa zabaltu. Pentsamendu teknologikoa jaun eta jabe dugu.

Azken 20 urteetan, Interneten bidez, www. ospetsua milioika erabiltzaile izaten ari da, eta beste unibertso berri bat

sortu da gure begien aurrean: informazioarena. Eta 10 urte eskasetan ordenagailuak, ikus-entzunezko gailuak eta telefonoak hainbeste eraldatu dira ze horrelako edozein zaharkitu egiten baita urtearen akabuan. Komunikazioaren aroan sartuta gaude, antza denez, oso denbora gutxian.

Eta orain apur bat asaldaturik banago, aizue, zer nahi duzue esatea. Ze motako pentsamendua dugu orain? Ze hausnarketarako txoko? Garai berri honetan, gure aldiak eta erritmoak patxadaz ezin zeharkatu, grekoek bezala, kontenplazioan, gure inguruaren ikuspegi orokor bat izateko, azterketa sakonak egin ahal izateko.

Hori oso zaila izaten dugu gaur egun. Konturatu gabe, berehala ohitu gara gure mobil, *tablet*, *iphone* eta enparauetara: multi-atazetan murgiltzen ikasi dugu eta hiper-loturetan bizitzen, web orriak xurgatzen, datuak hodeira bidaltzen, milaka mezu batera jasotzen. Hain arin eta gai-

Aroak



INES SERRANO
(Filosofian lizentziaduna)

netik irakurtzen dugu, ze azkenean ez dakigula oso ondo (e)zer ikasi dugun, edo non. Eta badirudi ez dugula oroimenik behar, dena baitago sarean.

Baina oroimena datuak batzea baino gehiago delakoan nago. Pentsamendua datuak izatea baino gehiago den bezalaxe. Filosofoen jakin-mina datuak jasotzea baino gehiago ere bazen. Ez dakit nik ba, lagunok, batzuetan apur bat asaldatzen naiz kontu honekin.

Ezkur urtea

Esakera edo errefrau batzuk denok izaten ditugu buruan hor nonon gordeta eta, halako batean, egorak eskatuta-edo gura barik gogoratzen ditugu. Dela "Umearen zentzuna...", edo "Zer ikusi...", edo "On eginaren pagua...", edo "Lan lasterra...", edo "Zelako egurra...", edo Gau alaiak...", edo "Zenbat buru...". Zerrenda amaigabea egin genezake, milaka daude-eta bilduta.

Ba, aurten ziur askori ezkurren kontua akordura etorri zaiola, ze aurten beste ezkur ikusi barik egon gara aspaldian: haritzak arramak abailduta ikusi



JOSEBA BUTROE
(Irakaslea)

ditugu, ezkurrez gainezka; haritz ondo-ko soloetan lanean ibili denak igarri du ezkurak jausten zarata etengabea alboan. Pagotxa basurdeentzat, neguan potolo-potolo sartzeko, ezkurra nahia janda.

Kontua da errefrau gehienek egor-raren bat interpretatzen dutela, horren isla izaten direla, egia handiak askotan –batzuetan, oster, hitz joko hutsak izaten dira, baina ez oso sinesgarriak–. Eta horrela, ba, ezkurren errefrau zuzena bada aurten negu itzela datorkigu: "Ezkur urtea, elur urtea". Horra atsotitza, osorik; eta kunplitzen bada, elurra eta hotza elkarrekin ibiltzen direnez, igual aspaldiko negurik gogorrena laster.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Feminismoa, aurtengo Gazte Topaketaren ardatz nagusia

Txorierriko Gazte Topaketak urriaren 31n, zapatuan, egingo dira bigarren aldiz Lezaman. Topaketak gazte eragile hauek antolatutako dituzte: Tarratada Sondikako gazte asanblada, Santzoka Derioko elkar-
tea, Inisutue Zamudioko gazte asanblada, Lezamako gazte asanblada, Hori Bai Lar-
rabetzuko gaztetxea, Ernai, eta Talka emakumeen taldea.

Azaldutako moduan, feminismoa izango da aurtengo ekitaldien ardatz nagusia. Izan ere, uste dute feminismoak le-
ku handiagoa eduki beharko lukeela gaz-
teen artean zein bizitzako esparru guz-
tietan. Era berean, garrantzitsutzat jotzen
dute arlo horretako prestakuntza eta
horregatik egun horretan egingo diren
ekitaldi guztiek kutsu hezigarria edukiko
dute. Hezigarriaz gainera, ekitaldi parte-
hartzaileak izatea ere nahi dute anto-
latzaileek, eta elkarrengandik ikasteko
baliagarriak.

Eguerdian poteoa egingo dute, baina
hori ez da poteo arrunta izango, baizik
eta gazteek hainbat joko edo egoerari
egin beharko diete aurre, dinamizatzaile
batzuen laguntzarekin. Bazkaldu ostean,
Kalerki Galdakaoko gaztetxearen antzerki
taldea arituko da eta, horren ostean,
muxu-jolasak egingo dira. Galdetu dugu,
baina ez digute aurreratu nahi izan jolas
horiek zertan dautzan. Beraz, hara joan

beharko da jakin-mina asetzeko. Bes-
talde, "Talka feminismoantzerki" ekitaldia
egingo dute, eta Gontzal Zubiaur kantau-
toareak eta Vinagre de Moderna taldeak
kontzertua eskainiko dute iluntzeko 8eta-
tik aurrera.

"Jendea Lezamara etorri eta ondo pa-
satzea espero dugu. Ekintzetan parte-
hartze aktiboa eduki dezatela nahi dugu
eta, horrela, elkarrengandik ikasi, guztion
artein feminismoantzerki aurrerapausoak
emateko".



Gutuna



Dominika Agergarai, gogoan

Dominika Agergarai, Xiberuari
hanitz ekarri diñana, zentü da 58
urtetan. Halan ematen zuen
Xiberoko botzak Dominikaren
heriotzaren berri. AIKOR! aldizkaria-
ren lerro hauetatik doluminak
bidali nahi ditugu. Saminez hartu
dugu berria. Hasieran, Lagatzu
Egunera urtero etortzen zen gazta-
saltzaile moduan ezagutu genuen.
Azkorria gazta ekartzen ziguna.
Baina, berehala ikusi genuen eus-
kal kulturarekin zuen konpromisoa.
Ezin zen ulertu Lagatzu Egun bat
Dominikaren kantu barik, eskena-
tokitik edo arratseko lagun giroan.

Urdiñarbeko laguna, kantoria
zendu zaigu, hil zaigu baina ez
zaigu joan. Gure bihotzetan bizirik
jarraituko du. Berari esker, Txorierr
eta Xiberoa askoz hurbilago daude.

Lagatzu euskera alkattea



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Alaialdireko landak • Apogilo zerbitzua
Salto • Txangoak • Animalien heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 29 • 48196 LEZAMA

**BOLALEKU
JATETXEA**

10. URTEARRA

Garaioa, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantziak
Facebooken

- Hainbat menu
- Karla
- Ospakizunak
- BOLAPARK

KIMA

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Garaioa 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIJA)

LEJARRENE JATETXEA

Garaioa auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Oroimenezko kontzertua, Sondikan

Txuma Olagüe Sondikako abesbatzak ekitaldi berezia antolatu du azaroaren 21erako. Ekitaldia iluntzeko 8etan egingo dute San Juan Bautista elizan, eta bertan Txuma Olagüe eta Andres Mendiolaren oroimenezko kontzertua eskainiko dute. Txuma abesbatzaren sortzailea izan zen orain dela 51 urte, eta hainbat urtetan izan zen haren zuzendaria. Hasieran, ahots baxuen abesbatza sortu zen; eta orain dela 27 urte, ahots mistoen abesbatza. Bestalde, Andres Mendiola abesbatza-taldeko presidentea eta bultzatzaileetarikoa izan zen, eta orain dela hiru urte hil zen. Txuma Olagüe ahots mistoen abesbatzarekin eta ahots baxuen abesbatzarekin batera, Pentagrama akordeoi taldeak eta Gorantzaileak dantza taldeak hartuko dute parte ekitaldian.

Instagram mintegia

Mintegia Derioko Argazki Taldeak (DAT) antolatu du eta bere ki-deetariko batek, Tania Viadasek, zuzenduko du. Bertan, argazkigintzari lotuta dagoen gizarte sare honen arlo guztiak aztertuko dira, hala nola erabilera, konfigurazioa, gaiak eta erabilgarritasunak. Seminarioa azaroaren 16an, 19:30ean, egingo dute Kultur Birikan, eta sarrera doakoa izango da. Interesatuak lekua bete arte sartu ahal izango dira aretoan.

Genero indarkeriaren kontra

Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatuko da eta data horren inguruan hainbat ekintza egingo dira gure herrietan. Urriko alea itxi orduko, hauen berri izan dugu.

Loiu

–Azaroak 25, eguaztena, 18:00etan: Ipuin-kontalaria, Ludotekan.

–Azaroak 27, barikua, 18:00etan: Ipuin-kontalaria, Elotxelerrin; eta 19:00etan: ligatzeko tailerra, Gaztegunean.

Zamudio

–Azaroak 20, barikua, 18:00etan: Desioen lorategia eta ginkana, Ludotekan; 19:00etan: “¿Hombres, mujeres y viceversa?” tailerra, Gazte Estazioan. Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak antolatua; 20:00etan: Emakumeen arteko boxeo-gaua, frontoian. Aldekoa Naranjo elkarteak antolatua.

–Azaroak 21, zapatua, 11:30ean: Ipuin-kontalaria, liburutegian.

–Azaroak 25, eguaztena, 12:00etan: Elkarretaratzea, Sabino Arana plazan; eta 19:00etan, Agirre Lehendakariaren plazan.

–Azaroak 27, barikua, 19:00etan: “Del mito del amor romántico al buen amor o al buen trato” hitzaldia, Jaione Valdesen eskutik.

–Azaroak 28, zapatua, 19:30ean: *El camino Belinda* antzezlan, Zamudiotorren.



Larrabetzu

–Azaroak 19, eguna, 17:00etan: Ginkana, Ludotekan. Berdintasun batzordeak antolatua.

–Azaroak 25, eguaztena, 19:00etan: *Woman in black* ekintza; 19:30ean: Elkarretaratzea, plazan. Berdintasun batzordeak antolatua.

–Azaroak 26, eguna, 18:30ean: Desprintzesatze tailerra (13 urtetik gorako emakumeentzat), Anguleri kultur etxean. Izena ematea: azaroaren 20ra arte. Berdintasun batzordeak antolatua.

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

BASALBEITIKO
TXAKOLINA
Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen
Bikain-Txa
Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTUZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrearragoiti ind., 8 - 215 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HORTZ KLINIKA
Idoia Zubietta
Osasun-zentroa & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTAEK - ORTUKONTZIA ESTETIKOA
HARRAK ZIN HEDUKAK
Dr. Arcelus kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Sondika

–Azaroak 16, astelehena, 2015 Berdintasunerako guinea, Goiri Erdikoa kaleko aparkalekuan.

–Azaroak 26, eguena, 17:30ean: Haurrentzako jarduerak, Ludoteka In eta IIn.

–Azaroak 27, barikua, 18:30ean: “¿Hombres, mujeres y viceversa?” tailerra, Gaztetxean.

Lezama

–Azaroak 27, barikua, 18:00etan: Umeentzako jarduerak, Ludoteka; 19:00etan: Tratu onen aldeko tailerra, Gaztegunean; 19:00etan: “¿Hombres, mujeres y viceversa?” tailerra, Gaztelekuan; 19:30ean: *Tú + Yo = es* antzezlanaren Ausartak taldearen eskutik, Kultura-aretoa.

Derio

–Azaroak 25, eguaztena, 19:30ean: Manifestazioa Kultur Birikatik eta Genero indarkeriaren aurkako adierazpena irakurtzea Udaletxean. Udalak eta Sutondoan elkarrekin antolatua.

–Azaroak 26, eguena, 18:30ean: “Identificando la violencia de género” hitzaldia Jaione Valdés adituaren eskutik, Kultur Birikan. Udalak eta Berdintasun Arloak antolatua.

Ariane Apodaca zamudioztarrak bere bigarren liburua kaleratu du



El tributo del miedo du izenburu, eta trilogia epiko bateko bigarren liburua da. “Trilogiako lehen liburua *El designio de las Dreias* da. “Mundu ezagunean” badira sei erresuma, eta, gerra hasten denean,

aliantzak egiten dira. Aliantza horien ondorioak azaltzen ditut bigarren liburuan. Ez dira ondorio onak”.

Idaztea eta lana uztartu behar izan ditu, eta urte eta erdi eman du bigarren liburua idazteko. “Aur bat korapilatsua izan da, bigarren liburua lehenengoaren eta hirugarrenaren arteko lotura denez, istorioa luzeagoa delako eta denborazko trantsizioak ere ondo kontatu behar direlako. Errazagoa da trantsizio horiek zinemagintzan kontatzea”.

Arianek zinegidoiko masterra egin zuen Edinburgo eta gidoi bat idazteko eskatu zioten, master-bukaerako proiektu moduan. Gidoia trilogia bihurtu da, eta lehenengo eta bigarren liburuak Arianek berak editatu ditu. “Kasu bietan, 65 ale atera ditugu. Lehenengo liburuari dago-kionez, ale guztiak saldu dira eta espero dut bigarren liburua ere ondo joatea”. Liburua Facebook bidez (eldesigniodelasdreias) eros daiteke eta Amazon-en ere ipini da salgai.

Zamudioztarra hirugarren liburuan hasi da lanean, eta, aitortu digunez, hori bukatzeko irrikan dago. “Izan ere, beste proiektu bi ditut buruan. Bata Bigarren Mundu Gerran kokatua dago, eta bestea gaur egungo istorio bat da”. Arianek beti izan du argi idazlea izan nahi duela, eta bide horretatik dabil, poliki-poliki.

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 4 DERIO 944541655

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

HABAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ
MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL.FNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M^o Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jasari izanagun Facebook-en

Mendi martxa, Loiun

Laugarren aldiz antolatu da azaroaren 22rako. Izena ematea doa-koa da eta 8:30etik aurrera egin behar da Alonsotegi plazan. Martxa bi egingo dira: luzea 9:00etan hasiko da; eta martxa txikia, 10:30ean. Lehenengoak 22 kilometro edukiko ditu; eta bigarrenak, 10. Martxen ostean, hamaiketako eskainiko da eta opariak banatuko dira parte-hartzaileen artean.

Txarriboda eta bertso saioa, Derion

Tximintx euskara elkarteak antolatu ditu azaroaren 14rako. Lagun Onak txokoan egingo dute arrastiko ordu bietan, eta bertan bertsolari hauek arituko dira bat-batean: Igor Elortza, Jone Larrinaga eta Oihane Perea. Gai-jartzaile Lutxo Egia ibiliko da.

Truke azoka

Lezamako Trukezaleak taldeak antolatu du azaroaren 22rako, eta goizeko 11etatik eguerdiko ordu biak arte egingo da herriko pilotalekuan. Azokak murritzeta, berrerabiltzea eta birziklatzea ditu oinarritzat, eta hara nahi duenak dagoeneko erabiltzen ez dituen gauzak eraman ahalko ditu. Baita umeek ere: kromoak, jokoak, arropa... Era berean, bakoitzaren denbora trukatzeko aukera egongo da, baita zerbitzuak ere.

Transhumantzia ekarri zuten gogora Larrabetzun

a: Idoia Andrés

Mikel Etxezarreta artzainak gidatutako 250 buruko artalde Larrabetzura ailegatu zen urriaren 10ean. Artalde egun bi lehenago, urriaren 8an, atera zen Zegamatik, Gipuzkoako Goierriitik Getxorainoko ibilbidea egiteko asmoz. Izan ere, hango artzainak, belaunaldietan eta 80ko hamarkadara arte, Uribe Kostaraino etortzen ziren neguan, mendialdeetako elurtzetatik ihesi eta artaldeentzako larre bila, eta ekintzak ohitura hori, transhumantzia, gogora ekartzea izan zuen helburu. Fredi Paia eta Aitor Gisasola getxotarrek Etxezarreta eta bere artaldearekin batera

egin zuten ibilbidea, eta hori *Akabuko martxe* dokumentalean jasoko dute.

Ibilbidea lau etapatan egin zuten, eta hirugarren egunean, zapatu arrastian, Larrabetzura ailegatu ziren. Herritar talde bat bidera irten zitzairen eta Zornotzako Marabi auzoan elkartu ziren, Larrabetzurako bidea handik elkarrekin egiteko. Atsedena hartu eta artzaina eta artalde Barrikara abiatu ziren hurrengo egunean. Getxora astelehenean heldu ziren. Ekintza hainbat erakundek sustatu dute, hala nola Getxo, Zegama eta Idiazabalgo Udalek, Uribe Kostako Mankomunitateak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek.



yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

enagandik gerta

ABOLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALBATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

Izpilen

PARAFARMACIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 635 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

Consulting Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746

Milano, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txori-erri bidea, 3-4
413 Iulgoia
48160 Derio

Txori-erri eta Lasa
94 454 44 98
a.amondarain@euskalnet.net

Reformas Rivero

Especialitateak: igeltserotza eta pintura
Konpromisorik gabe aurrekontuak
Azkarra, garbiak eta merkeak

R

t: 603 109 852
luis_alberto_rivera_1984@live.com



JULEN LARRUZEA DUATLOILARIA, ESPAINIAKO TXAPELDUNA.– Larrabetzuarrak txapelketa irabazi zuen urriaren 10ean, Castron. Gainera, lasterketa berean Europako txapeldunordea gelditu zen. Julenek ez du areririk Euskal Herri mailan. Izan ere, urriaren 17an Euskal Herriko mendi duatloi txapelketa irabazi zuen, eta euskal zirkuituaren lasterketa guztiak ere irabazi ditu aurre. Beraz, datorren urtean erronka berriei egingo die aurre. “Ziurrenik duatloia utzi eta triatloia hasiko naiz egiten”.

Oregi eta Lekue, puntako aizkolariak

Bizkaiko Aizkolari Txapelketa Algortan jokatu zen urriaren 4an, bikoteka. Aritz Oregi eta Beñat Lekue larrabetzuarrak 19 minutu eta 31 segundoko marka egin eta bigarren postua eskuratu zuten. Lekuek esan digunez, oso pozik daude plazan egindako lanarekin. Bestalde, hilaren 17an II. Mailako Bizkaiko Aizkolari Txapelketa egin zen Larrabetzun. Oregik hirugarren postua lortu zuen eta Lekue bosgarren postuan lotu zen.

Derio, magia beteta

Izan ere, “D Magia Gozoa Jaialdia” egin da bertan lehenengo aldiz, urriaren 24an eta 25ean. Jaialdiak magia ikuskizunez eta gozogintza mota ezberdinetako postuez bete ditu herriko kaleak da eta helburu bi eduki ditu: alde batetik, herritarrek eta bisitariak magia gozatzerantz animatzea; eta bestetik, herriko ostalaritza dinamizatzea.



a: Derioko Udala

Azoka, Sondikan

Azaroaren 15ean, domeka, egin go da 10:00etatik 14:30era, eta baserriko produkturik onenak eramango dira bertara. Artisauek ere ipiniko dituzte beren lanak ikusgai. Bizkaiko txakolina, Idiazabal gazta eta euskal pastela dastatzeko aukera ere egongo da. Bestalde, umeentzako tailerak antolatuko dira eta elikagaiak batuko dira Bizkaiko Elikagaien Bankuari emateko.

Perretxikoen inguruko ekintzak

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak, Zizegorri elkartearekin eta Berbalagunekin batera, perretxikoen inguruko zenbait ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Urriaren 31n, zapatua, goizeko 8etan, Eleizalde aparkalekuan elkar-tu eta handik Sarriara joango dira perretxiko bila. Batutako aleak hurrengo egunean prestatuko dituzte Geldoko txokoa, eta azaroaren 6an, 17:30ean, umeei zuzendutako tailerra egingo dute Ludotekan. Perretxiko Argazki Lehiaketa ere antolatu dute. Argazkiak azaroaren 20ra arte bidali daitezke lagatzu@lagatzu.org edo txorierri.berbalaguna@gmail.com helbide elektronikoetara. Argazkiak aza-

roaren 27ra aurrera ipiniko dira ikusgai Fernan eta Ama3 tabernetan.

Untza Derioko mendi taldea ere perretxiko bila joango da azaroaren 7an. Hitzordua goizeko 8etan ipini dute Udaletxearen aurrean, eta hurrengo goizean, aleak Sollube kalean ipiniko dituzte ikusgai. Perretxiko-dastatzea ere egingo dute. Informazio gehiago: untzamendi.biz. Era berean, Lezama Gailur mendi taldeak Perretxiko Eguna antolatu du azaroaren 7rako. Goizeko 8,30ean gelditu dira Herriko Plazan, eta eguraldiaren arabera zehaztuko dute nora joango diren. Era berean, leku bakoitzean dagoen perretxiko kopurua hartuko dute kontuan.



Estatu Batuetan, *Black Friday* ematen dio hasiera Gabonetako erosketen saioari, eta egun horretan izugarrizko beharpenak eskaintzen dira hainbat dendatan. Aurten azaroaren 27an izango da. Hurrengo egunean, azaroaren 28an, *Fair Saturday*, Zapatu Justua, egingo da, baina horrek ez du zerikusirik aurrekoarekin. Bariku Beltza kontsumoaren jai nagusia da, eta Larunbat Justua, aldiz, elkartasunarena. Hau da, egitasmo horren helburua da artistek ekitaldiak eskaintzea eta bertan ateratzen duten dirua Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) batera bideratzea. Ohitura hori ez dute Ameriketako sortu, Euskal Herrian baizik, eta sortzaile haietako bat Aritz Lekerika derioztarra da.

"Jordi Albareda nire laguna da eta bakoitzak Bilboko abesbatza batean abesten dugu. Iaz, apur bat nazkatuta ibili ginen *Black Friday* kontu horrekin guztiarekin, eta egun horri buelta ematea pentsatu genuen. Eta horrela sortu genuen *Fair Saturday*", esan digu Aritzek. Iaz 20tik gora kontzertu antolatu zituzten Bizkaian eta 15.000 euro lortu zituzten. Guztira, 16 GKEk jaso zuten diru-laguntza. Derioko Iparralde abesbatzak ere bat egin zuen ekimenarekin, eta kontzertu bat eskaini zuen Andres Isasi Getxoko musika-eskolako abesbatzarekin. Aurten berriro egingo dute, Isidro Deunaren elizan, Derion, 19:45ean. Dirua Vicente Ferrer Fundazioari emango diote. Gainera, Zamudioko Kamara Korala kontzertu bat eskainiko du 20:00etan, Bilboko El Carmen elizan.

"Kulturak aberastasun ekonomikoa zein soziala ekartzen digu eta izugarrizko garrantzia du gizakion hezkuntzan. Guk hori guztia aintzat hartu nahi dugu. Beraz, gonbitea egiten diegu proiektu honetan parte hartu nahi dutenei: kultur

Artista solidarioen bila



taldeei eta eragileei, aretoen jabeiei, enpresei... Eta noski, mota guztietako artistei eta sortzaileei, hau da, argazkilariak, musikariak, eskultoreak, dantzariak, aktoreak... Zapatu Justuari esker, gogora ekarriko dugu hainbat GKEk egiten duten lana, eta, bide batez, elkarre haiek laguntza jasoko dute".

Mugimendua erabat libre da. Artista bakoitzak erabakitzen du zer egingo duen, nori emango dion dirua, zein baldintzatan, non... "Guk ez dugu sustatzaileak izan nahi, bitartekariak baizik". Edozeinek egin ahal du bat Zapatu Justuarekin, artista ezezagunek zein ezagunek. Azken horien artean, Fran Perea aktorea, Rosana kantautorea edo Asier Polo biolontxelo-jotzailea aipa daitezke. Gainera, hainbat komunikabidek eta erakundeek hartzen dute parte mugimenduan: Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, Campos Eliseos antzokia, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abes-

batzen Federazioak... GKEei dagokienez, Greenpeace, ASPACE edo Gure Señeak bezalako elkarteek jaso dute Zapatu Justuaren diru-laguntzaren bat.

Euskal Herritik mundura

Aurtengo edizioari begira, *Fair Saturday* ekimena zabaldu da eta 150 ekitaldi baino gehiago egingo dira Estatuan. Bilbon, esate baterako, Alhondigak, Guggenheim Museoak, Arriaga antzokiak edo Euskalduna Jauregiak hartuko dituzte ekintzak, baita zenbait tabernak ere. "Anbizio handia dugu, eta munduko lau haizeetara zabaldu nahi dugu. Aurten, besteak beste, Madrilen, Asturiasen edo Bartzelonan antolatuko dira ekintzak, eta datozen urteotan Argentina, Brasil, Frantzia, Polonia edo Ingalaterra bezalako herrialdeetara eraman nahi dugu Zapatu Justua. Harrigarria da, ahoz aho zabaldu dugu mugimendua, eta uste baino gehiago hazi da".

Informazio gehiago:

www.fair-saturday.org





**Garmendia
ardoak**

Pinoia pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea



Laborantzaren munduan hazia eta Historiaren maitale amorratua, Etxebarribeheko baserriko auzotarrak Zamudioko transformazioa gertutik bizi izan du. Bakeroen filmak asko maite ditu: “Zaldunen karakterizazioa ikustea asko gustatzen zait, alde handia baitago estatubatuar ejertzitoaren eta indioen artean. Ejertzitoak zelabere dotoreak erabiltzen dituzten bitartean, indioek estilo paregabearekin eta mantaxo bakar batekin ezin hobeto kontrolatzen dituzte euren zaldia”.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com – facebook.com/atomikastudio



Iezama


consultorio veterinario
albaitaritza klinika

www.consultorioveterinarioiezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak




94 455 56 19

Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

t: Gaizka Eguzkitza

Zelan San Migel jaietan?

Bi aldiz egon naiz Lauroetan. Saio berezia da, udako sasoiari bukaera ematen diolako eta, era berean, udazkenari ongi etorria. Alde batetik, nekatuta gaude, baina bestetik, oso ilusionatuta ere bai. Aurtengo saioa pixka bat ezberdina izan da: karpa bat ipini dute, entzuleak leku goxongo batean egoteko, eta hori oso mesedegarria izan da saiorako. Ni oso gustura sentitu nintzen.

Ez da Txorierrira etorri zaren lehenengo aldia. Bailaran bertsozale asko daude, ezta?

Bai. Euskal Herriko edozein tokitan gertatzen den moduan, euskaldunak dardenean, bertsozaleak topatzen ditugu. Toki batzuetan zaleak nagusiak dira, eta besteetan, gazteagoak. Txorierrin biak uztartzen dira, eta horregatik da plaza polita. Gazteek bertsolaritzarekin bat egitea etorkizunaren seinalea da. Bertsolariok nagusien berotasuna estimatzen dugu, bai horixe, baina gazteak edo haurrak plazan ikustea ere bada zoragarria.

Hainbat txapelketa irabazi dituzu. Nolako garrantzia ematen diezu?

Guk saio guztietan ahalik eta ondoen aritzen saiatzen gara. Baina egia da, txapelketek garrantzi erantsi bat dute. Txapelketak plaza nagusira iristeko abiapuntutzat hartzen ditugu. Ez dut uste Euskal Herrikoa herrialdeetakoak baino garrantzitsuagoa denik, baina egia da komunikabideek oihartzun handiagoa ematen dio-

“Besteen kontra baino, ge kontra jokatzeko dugu tx

AMETS ARZALLUS | bertsolaria

Irailean San Migel jaiak ospatu ziren Lauroetan eta han antolatutako bertso-saioan Amets Arzallusek hartu zuen parte. Txapel-dun nagusiarekin, besteak beste, Txorierrira, bere ibilbidea eta bertsolaritza bera jorratu ditugu.

tela. Eta hori guztia guri ere iristen zaigu, garrantzia kentzen saiatzen garen arren.

Garai batean Andoni Egañak baino ez zuen irabazten Txapelketa Nagusia. Zelan bizi izan zenuten hori zuok, bertsolariok?

Nire lehenengo bi finaletan Andonirekin ibili nintzen. Guretzat erreferentzia bat zen, baita laguna ere. Garai hartan hainbat aldiz azaldu ginen elkarrekin saioetan, txapelketetan, afarietan... Eta konplizitate handia genuen. Horregatik, irabazten zuenean, batetik, izugarrizko

Ametsetan

Amets Arzallus Antia Donibane Lohizunen jaio zen 1983an, baina Hendaian bizi da txikitatik. Kazetaritza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta gaur egun kolaborazioak egiten ditu *Argia* aldizkarian eta Euskadi Irratian. Gainera, Hendaia-ko bertso eskolan ere aritzen da. Euskarak Iparraldean duen egoerak kezkatzen du Amets. “Oso ongi diseinatutako politika linguistikoa frantsesak kalte handia egin dio euskarari. Erakundeek legeak eta baliabideak eman behar dituzte euskara bultzatzeko eta, era berean,

jendeak kontzientzia hartu behar du. Salto kualitatibo handi bat ematen ez badute, kinka larrian uzten dute euskararen etorkizuna”.

Amets era natural batean sartu zen bertsolaritzan. Aita, Jexux, ere bazen bertsolaria eta Maddalen, bere arreba, ere ateratzen da plazetara. Ametsen palmares ederra du: lau aldiz jarraian irabazi zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketa (2000-2003); eta hiru aldiz, Iparraldeko Xilaba Bertsolari Txapelketa (2008, 2010, 2012). Bertsolari Txapelketa Nagusiaren azken hiru finaletan ibili da (2005, 2009 eta 2013), eta azkenean txapela eramane zuen etxera (2013).

a: Galder Izagirre /
iturria: Xenpelar
Dokumentazio Zentroa



ure buruaren apelketetan”

poza hartzen genuen eta, bestetik, miresmen puntu bat. Andonik beti eman zuen txapeldunaren maila bertso-saioetan zein txapelketetan, baita txapela galdu eta gero ere, eta hori ondoko bertsolariontzat babes handia zen. Izan ere, bertsolariok denon artean saio on bat egitea dugu helburu, eta ahalegin horretan Andonik hartzen zuen ardura-maila pribilegio bat zen guretzat, askotan saioa salbatzen zuelako.

Dirudienez, bertsolarien artean ez dago lehiakortasunik txapelketetan, baina lehia edozein txapelketaren funtsa da, ezta?

Txapelketak besteen kontra jokatzeko ditugu noski, baina guk ez ditugu horrela hartzen. Besteen kontra baino, geure buruaren kontra jokatzeko dugu txapelketetan. Saioetan helburu kolektibo bat dago, jendeak disfrutatzea, eta txapelketetan ere eusten diogu pixka bat horri. Txapelketako giroak barne-kontraesan batzuetan sartzen gaitu: lagunek inguratuta zaude, baina zuk ahalik eta urrunen iritsi nahi duzu eta ahalik eta ongien egin nahi duzu. Nik konplizitate handiz bizi ditut momentu horiek, sumatzen dudalako beste bertsolariek ere badutela konfiantza neure lanean.



a: Gari Garaialde / iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Zer nahiago dituzu, bertso-afariak ala txapelketak?

Txapelketak noizean behin jokatzeko ditugu eta haiek dakarten tentsioa gustura hartzen dut, baina astero bertso-afariak egitea askoz osasungarriagoa da (kar, kar).

Bertso eskoletan aritu zara. Bertsolari jaio behar da, ala ikasi ahal da?

Bertso-eskolek aski erakutsi dute bertsoa lantzen den zerbait dela. Nik txikitik etxean bizi izan dut bertsozaletasuna. Garai hartan ziur asko ez nuen ezer berezirik, baina argi dago inguru honetan ibil-

“Txorierrin zale gazteak zein nagusiak uztartzen dira, eta horregatik plaza polita da”

“Bertsolaritzaren egoera ona da eta hori ez da txapelketan ikusten, asteroko saioetan baizik”

tzeak bertsolaria izaten lagundu egin didala.

Zein da bertsolaritzaren egoera gaur egun?

Txapelketak arrakastatsuak dira: hainbat ikusle, oihartzun handia komunikabideetan... Han betiko bertsozaleak zein zaletu berriak batzen dira. Baina bertsolaritzaren benetako osasun-egoera txapelketek kanpo bilatu behar dugu, saioetan hain zuzen ere. Eta hor nahiko osasun ona ikusten dut, bai kopuruz, bai adinez. Zer hobetzeko egongo da, noski, baina pozik egoteko modukoa da.

Inaki
94 455 65 08
Jabi
94 452 14 31
Magalarte Txakolina
75 cl.
10,75 % vol.
Bazkako Txakolina
Denominación de Origen

enViser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio
TEL. 94 424 38 34



Baserri Antzokiaren sustatzaileak pozik baino pozago azaldu dira. “Jakina! Bost urte luzez ibili gara lanean, heldu garen puntura ailegatzeko. Krisialdian murgilduta egon garen urteak izan dira, gainera”. Txorierriko gizarteari ahalik eta zerbitzurik onena eman nahi diote, eta, horregatik, badakite benetako lana orain hasiko dela. “Partaidetza zabaldu behar dugu elkarteetan, enpresetan eta gizarte osoan oro har. Zeregin horrekin duela hiru urte hasi ginen, baina proiektua aurrera ateratzeko larri ibili garenez, erabaki genuen apur bat gelditu edukitzea egitasmoa ziurtatu arte. Orain emango diogu jarraipena”.

Lanak uste baino urte bi berandua go hasi dira, “baina proiektua sendoa da orain”, azpimarratu dute. Eraikinaren diseinua ere birplanteatu da kostuak murrizteko. “Edozelan ere, eraikina lanabesa baino ez da Fundazioaren helburuak bete ahal izateko: Txorierriko euskara eta euskal kultura sustatzea, eta Baserri Antzokia Txorierriko eta inguruko euskaltzaileen topagunea bihurtzea”. Eraikinak baserri baten itxura edukiko du eta solairu bakarrekoa izango da. Bertan, taberna, jantokia, pista, eszenatokia eta lau txoko atonduko dira, eta aparkalekua eta terraza zabalak kanpoaldean. Aurreikuspenaren arabera, lanek zortzi hilabete iraungo dute eta eraikina zabaltzeko beste hilabete bat beharko da.

Lehen harria ipinita


Txorierriko Baserri Antzokia laster bihurtuko da egia. Izan ere, hura eraikitzeke lanak hasi berri dira Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean (Derio), eta espero da udaberrirako amaituta egotea. Baserri Antzokia TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak sustatu dute, eta horretarako Fundazioa sortu da. Azpiegitura berriaren ardatz nagusiak euskara eta euskal kultura izango dira.

Euskal gunea

Baserri Antzokia Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dabilta eraikitzen, Derion. TOTOANek hango Udalari aurkeztu zion egitasmoa eta horrek hasieratik adierazi zuen lankidetzarako konpromisoa. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen bidez, orube bat ere utzi zuen eraikina bertan egiteko. “Proiektua mamitu eta taxutu zenean, Baserri Antzokia Fundazioa sortzea hobetsi zen, formula horrek ondoen ahalbidetzen duelako administrazio publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko elkarlana. Bestalde, egitasmo errentagarria eta autofinantzatua izango da eta irabazi asmorik gabekoa. Eta bere jardueran zein aginte-organismoetan Txorierriko gizarte osoa—pertsonak, elkarteak, enpresak eta erakundeak

batzeko asmoa dago. Fundazioa eratzea horregatik ere egokitzat jo genuen”.

Euskara eta euskal kultura sustatzeko, erakundeek irakaskuntzan egindako lanari jarraipena emanez, ekimen pribatuak euskararen erabilera bultzatzeko euskal guneak sortzeari ekin zioten. Bilboko Kafe Antzokia etorri zen lehena, eta haren ostean, Ondarroakoa, Donostiakoa edo Elgetakoa. “Euskararen erabilera bermatzeko eta herri zein eskualdeen erroak eta sustraiak mantentzeko, ezinbestekotzat jotzen da aisiari lotutako euskal guneak sortzea. Osterantz, gune horien gabeziak hiri handietara joatea dakar, eta horrekin batera, jendea deserrotzea eta bertako kulturen galera”, azaldu digute. Baserri Antzokiak beharrian hori aseko du. “Proiek-



Azpiegitura berriaren ardatz nagusiak euskara eta euskal kultura izango dira

tuak Txorierriko biztanleak ez ezik langileak eta enpresak ere hartuko ditu kontuan, eta zerbitzua eskainiko die kultur eta aisialdia esparruetan, betiere euskara bultzatzeko asmoz". Hala, bere etxaurrea Txorierriko eta inguruko euskaltzaleei begira egongo bada ere, nahi duenak hartu ahalko du parte proiektuan, bai eratze prozesuan, bai bere garabidean. "Ideologia politikorik gabekoa izango da, euskalduntasuna ardatz bakarra izanik".

Bertakoa sustatzu

Baserri Antzokia Txorierriko eta inguruko euskaltzaleen kultur eta aisialdi harremanetarako elkargune bihurtzea du helburu. Horren haritik, arreta berezia ipiniko dute gazteengan, haientzat ere erreferentziazko lekua izan dadin. Elkarteei ere egongo da zuzenduta. Lankidetzak lantzen hasi dira horretarako, eta kirol guneak, bilera gelak eta txokoak eskainiko zaizkie. Era berean, Txorierriko enpresei eta haien langileei emango diete zer-

bitzua. "Ostalaritza zerbitzua eskaintzeaz gainera, euskal kultura hurbilduko diegu gure bailarara datozen langileei eta atzerriarrei, hala nola dantzak, musika, herri kirolak eta bertsolaritza. Bertoko enpresen teknologia ere ipiniko dugu ikusgai, izan ere, sektore hori oso indartsua da gure eskualdean eta enpresekin akordioak egiteko asmoa dugu, elkarlanean oinarritutako ekitaldiak antolatzeke". Turismoa Baserri Antzokiaren sustatzaileek berenganatu nahi duten beste arlo bat da. "Bisitariei zein turistei gure kultura erakutsiko diegu bere zentsurik zabalenean. Horrela, bada, bazkariak, afariak eta bes-

telako ekitaldiak antolatuko ditugu eta horietan euskal kulturari lotutako ikuskitzuna ere egongo dira, bertso saioak, aikolarien erakustaldiak edo txalaparta, batzuk aipatzearren".

Bertako produktuek ere lekua edukiko dute azpiegitura berrian, eta ahalegin berezia egingo da horiek bezeroei hurbiltzeko eta haien salmenta sustatzeko. "Bertoko merkataritza bultzatzeko tresna ere izango da, kultura eta aisia sustatuko direnez, bezeroak eta turistak erakarriko direlako, eta gaur egun Txorierritik kanpora doazenen ere bertan gelditzeko aukera gehiago izango dutelako".

RENOVE PLANA

Diru-laguntzak, leihoak aldatzeko

Irailetik aurrera
Atzeraeraginezko lizaera
Izapide guztiak, geure esku

Atzeratutako diru-laguntzak
inguruetan dira eta

PERSIANAS Y VENTANAS GORDONIZ

ADITUAK, PERTSIANA ETA LEIHOETAN

Gordoniz 97, 48002 BILBAO ☎ 946 034 689 – 678 054 887
www.persianasgordoniz.com 🌐 Info@persianasgordoniz.com 📱 Persianas Gordoniz

Zer egin emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko?

Genero-indarkeria ez dira bakarrik bikotekideak edo bikotekide ohiak emandako kolpeak edo tratu txarrak; emakumeek, bizitza publikoan nahiz pribatuan, emakume izate hutsagatik pairatzen dituzten jokabide asko eta asko ere badira genero-indarkeria.

Emakumeen aurkako indarkeria jasaten duzu, baldin eta...

–Zure bikotekideak edo bikote ohiak eraso fisikoak, sexualak edo psikologikoak egiten badizkizu.

Kontrolatu egiten zaitu: behin eta berriro deitzen zaitu, SMS-ak edo korreo elektronikoak bidaltzen dizkizu; WhatsApp-aren bidez kontrolatzen zaitu edo gizarte-sareetan dituzun profilak ikustatzeko zaitu; nora eta norekin zoazen edo zer egiten eta esaten duzun azaltzeko eskatzen dizu; zure janzkera kontrolatzen du eta hura gustatzen ez bazaio, aldatzeko eskatzen dizu.

Bakartu egiten zaitu: ez zaio gustatzen zuk lagunak izatea eta ez du nahi zuk zure familia ikustea; edo gutxietsi egiten zaitu beste pertsona batzuen aurrean; etengabe egiten dizu oihu eta errua zurea dela esaten dizu, eta beti egiten duzula huts.

Ikaratu egiten zaitu: beldur diozu; iraindu edo umiliatu egiten zaitu; mehatxu egiten dizu bere buruaz beste egingo duela edo seme-alabekin geratuko dela esanez; garrantziko agiriak ezkutatzen dizkizu, hala nola pasaportea eta bankuko libretak; behartu egiten zaitu, xantaia egiten dizu...

–Familiako edozein gizonengandik indarkeria fisikoa, psikologikoa edo sexuala jasotzen baduzu, nahiz eta hura zure bikotekidea edo bikotekide ohiak izan.

–Sexu-askatasunaren kontrako delituen baten biktima bazara edo izan bazara (sexu-erasoa, sexu-abusua, behartutako prostituzioa, sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa, exhibizionismoa, sexu probokazioa...) edo lanean sexualki jazartzen zaizkizula sentitzen baduzu.



Gogora ezazu:

–Emakume guztiok dugu indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea; ez izan beldurrik, arautu gabeko egoeran bazaude ere.

–Zure bizitzaren eta gorputzaren jabea zeu zara, eta zuk zeuk erabakitzen duzu zer egin nahi duzun.

–Zure seme-alabak askoz hobeto egongo dira, zu ere hobeto bazaude.

–Ezetz esateko eskubidea duzu; zure sentimenduez fida zaitez eta zerbait gusatzeko ez bazaizu, ez ezin zalantzarik: esan EZETZ!

–Gertatzen zaizuna konfiantzazko pertsona bati kontatzea aurrera egiteko modu ona da. Laguntza eskatu lagunengatik, senideren bati, bizilagunen bati edo profesional bati.

–Prozesua latza izan daiteke hasieran, baina denborak aurrera egin ahala poztu egingo zara, zure bizimodua aldatzeko erabakia hartu duzulako.

–Hainbat adin, gizarte-egoera edo nazionalitatearen emakume asko ere badaude egoera berean, edo egon dira.



Zer egin emakumeen aurkako indarkeria pairatzen bazara edo hala uste baduzu?

–Arriskuan bazaude, deitu 112 telefono-zenbakira! Zure kasuaren araberrako babes-neurriak abiarazi-ko dira.

–Entzuteko edo hitz egiteko desgaitasuna baduzu, bidali SMS bat 600 123 112 telefono-zenbakira: adierazi zure datuak eta kokalekua, eta idatzi “genero-indarkeria”.

–Zauri fisikoak edo psikikoak badituzu, edo izan ditzakezula uste baduzu, jo ezazu OSASUN ZENTRO edo OSPITALE batera, eta azaldu zauriak nork eragin dizkizun. Eskatu mediku-txostenaren kopia bat. Handik, dagokion epaitegira bidera-tuko dute zaurien txostena.

–Zure kasua profesionali ISIL-PEAN azaldu nahi badiezu, deitu 900 840 111 telefono-zenbakira (24 orduko zerbitzua). Zerbitzu horre-tan arreta eta aholkuak emango diz-kizute, eta eskura dituzun eskubide eta zerbitzu guztien berri.

–Zure kasua profesionali AU-RREZ AURRE azaldu nahi badiezu, jar zaitez harremanetan Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin (BLZ), 900 400 028 telefono-zenbakira dei-tuta. Eusko Jaurilaritzako zerbitzu horretan behar duzun informazioa eta laguntza soziala, juridikoa eta psikologikoa emango dizute. Hala-ber, beharrezko zerbitzu eta baliabi-deetara bideratuko zaituzte.

–Bestalde, hitzordua eska deza-kezu zure Udalaren oinarritzko gizar-te-zerbitzuan. Han, eskura dituzun baliabide eta zerbitzu guztien gai-neko orientabidea emango dizute, eta zure bizi-kalitatea hobetzeko erabakien inguruan lagundu eta aholkatuko zaituzte.

Arazo honen jakitun, hari aurre egiteko egunero egiten den lanaz gain, Txorierriko eta Mankomunita-teko Udalek herritar guztientzako jarduerak antolatu dituzte azaroa-ren 25eko kanpainaren harira, Ema-kumeenganako Indarkeriaren aur-kako Nazioarteko Eguna baita.



Txorierri egaz
Ekonomi garapenerako zerbitzua
Servicio de desarrollo económico

Langabezian zaude? Negozio-ideiaren bat duzu?

Zure negozioa abian jartzen laguntzen dizugu!

gehienez 1.300 € zure enpresa-idea garatzeko

gehienez 1.950 € zure negozioa abiarazteko

Enpresa-idea bat garatzeko
40 laguntza.

24 laguntza enpresa-jarduera berriak abiarazteko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
1.000 € persona bakoitzeko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa:
1.500 € persona bakoitzeko.

Zenbateko hauek hurrengo kasu hauetan handitu egingo dira:

- **%15** areagotuko da **18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago** badituzte,
- eta beste **%15 emakumeak** badira.

Ez itxaron gehiago... Eskaerak aurkezteko epea:
2015eko azaroaren 6ra arte

Pertsona ekintzaileentzako laguntzak



Informazio gehiago:

Txorierri Etorbidea, 46 – Pol. Berreteaga 13 A – 48150 Sondika – Bizkaia
Tel. 944 536 370 • Fax 944 531 344 • egaz@txorierri.eu

www.txorierri.eu

Ikasgelara itzultzea

HELDUEN HEZKUNTZA

Helduen Hezkuntzako zentroek (HHE) oinarrizko heziketa ematen dute, eta alfabetizazioa zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) titulua lortzea hartzen dituzte beren baitan. Txorierriko HHEko zentroa Derion dago kokatuta, Aldekona auzoan hain zuzen ere, eta bertan 150 ikasleri ematen diete arreta.

t: Itxaso Marina

Txorierriko HHEko zentroa Leioako egoitza nagusiaren menpe dago eta 1986-1987 ikasturtean ipini zen martxan Derion. Gaur egun hango Udalak Aldekona auzoan dituen lokaletan dagoen arren, beste toki batzuetan ere egon da aurretik, Seminarioan, esate baterako. Zentroan bost irakasle daude eta 150 ikasleen heziketa dute beren ardurapean. Maria Puy Gastón Etayo irakasleatariko bat da, eta euskara eta ingeles irakaslea bada ere, beste ikasgai batzuk ere ematen ditu, hala nola lengoaia eta gizartea.

HHEko zentroak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren barruan daude eta, hainbat arrazoi tartean, ikasketak amaitu ez dituzten edo beren garaian eskolara joan ez ziren 18 urtetik gorako lagunei daude zuzenduta. Sortu zirenean, “bizi-tzan zehar ikastea” zuten ardatz nagusitzat, baina Maria Puyk azaldu digun beza-

la, filosofia hori aldatu egin da eta gaur egun titulua ateratzea da helburu nagusia. “Egia da lehen ere pertsona asko HHEko zentroetara eskola-graduata lortzera etortzen zirela, baina beste helburu batzuk zituzten lagunak ere bazeuden: idazmena eta irakurmena lantzea, hizkuntzak eta informatika apur bat ikastea, buruko gimnasia egitea... Ikaste hutsagatik ere etortzen ziren. Hezkuntza Sailak irizpideak aldatu ditu eta orain lehentasuna ematen zaio DBHko titulua ateratzeari. Hau da, hona matematika lantzeko asmoz datorren lagun batek derrigorrean eman behar du izena DBHko titulua ateratzeko taldean, eta bere mailari dagozkion azterketak egin”.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau mailaz gainera, ingelesa eta informatika ere eskaintzen dituzte Derion, eta Maria Puyren esanetan, baliabide egoiak dituzte beren lana betetzeko: ordenagailuak, proiektagailuak, fotokopiak... Hala ere, Administrazioaren partetik arreta pertsonalizatuago bat eskatzen du. “Lehen bazegoen pertsona bat HHEko zentro guztiez arduratzen zena, baina figura hori desagertu egin da eta zaku berean sartu gaituzte Hezkuntzako beste adar batzuekin. Irizpideak orokorrean ematen dira eta, ulertuko duzuenez, hona datorren pertsona baten egoerak eta motibazioak ez dute zer ikusirik Lanbide Heziketan dabilen gazte batek dituenekin, adibidez. Beraz, ezin da kasu bietan irizpide berberak ezarri. Nik uste dut HHEko zentrook berariazko saila eta arauak eduki beharko genituzkeela”.

Leku handiago bat ere eskatzen dute, ikasgelak txiki gelditu direlako. “Gutxienez 15-17 ikasle egon behar dira ikasgela



bakoitzean, eta gehienez 20. Estu gabil-tza leku aldetik; nik, adibidez, Kultur Birikako gela bat erabiltzen dut ingelesa emateko. Gure lokalen ondoan badago beste lokal bat eta lehen margolan tailerra egiten zen han. Hutsik dago eta salgai ipini dute. Udalarena da eta guri uzteko eskatu diegu, baina ezetz esan digute”.

Profil anitza

Txorierriko HHEko zentroa astelehenetik barikura dago zabalik, goizeko 9etatik eguerdiko ordu biak arte. Doako hezkuntza ematen da bertan eta zerbitzua txorierritarrei zuzenduta dagoen arren, beste herrietako lagunek ere badute han izena emateko aukera. Era berean, txorierritarrak beste udalerrri batzuetara joan ahal dira, Derion haien beharrian-

*Filosofia aldatu
egin da eta orain
titulua ateratzea da
helburu nagusia*

*“Nik uste dut HHEko
zentrook berariazko
saila eta arauak eduki
beharko genituzkeela”*



*Ikasgelak txiki
gelditu dira eta
leku handiago bat
behar dute*

tara egokitzen den talderik ez badago. Izena emateko baldintza bakarra 18 urte-
tik gorakoa izatea da. Ikasleen profilari
dagokionez, hura oso anitza dela esan
daiteke. "Ikasle batzuk oso gazteak dira.
Langabezian daude eta ikusi dute, lana
topatzeko, beharrezkoa dela DBHko titu-
lua izatea. Gero, etxekoandre asko ere
etortzen dira. Gaztetan ez zuten ikasteko
aukerarik izan edo ikasteari utzi behar
izan zioten, eta irakurmena, idazmena...
lantzeraz datoz. Edo gehiago ikastera.
Erretiratuak ere baditugu, beren ikaske-
tak dituztenak, baina orain denbora li-
brea dutenez, ingelesa edo informatika
ikasi nahi dutenak". Etorkinak ere badau-
de ikasleen artean. "Batez ere gaztelania
ikastera datoz eta hizkuntza mendera-
tzen doazen heinean, DBHko ikasgeletan
sartzen saiatzen da. Izatez, batzuk DBHko
titulua ateratzeko asmoarekin datoz ha-
sieratik. Beren herrietan egindako ikaske-
tak bertan balioztatzea prozesu luzea eta
garestia da eta horregatik nahiago dute
hemengo titulua atera". Bestalde, mutil
gehiago daude ikasle gazteen artean; eta
emakume gehiago, nagusien artean.

Alaia
fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Talleri, 5
48170 Zamudio
94 425 05 85

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

OK
OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Unibe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Adin eta kultura ezberdinetako ikasleek osatzen dituzte taldeak. Oso bestelakoak dira eta talka egiten dute batzuetan, baina, halaber, esperientzia aberasgarria da. "Gauza guztietatik ikasten delako, eta guztiongandik. Gainera, helburua ez da bakarrik titulua atera dezatela, baizik eta pertsona moduan hezi daitezela, balioetan hezi daitezela, eta besteak ondo tratatzen ikasi dezatela". Horretarako, ikasgeletan egiten den lanaz aparte, irteerak ere antolatzen dira edo inguruko herrietan egiten diren hitzaldietan eta ekintzetan hartzen dute parte, batzuk aipatzearen.

Etorkizun beltza?

"Ikasleak pozik sentitzen direla uste dut, ondo tratatzen ditugulako. Tratu hur-bila ematen diegu". Ikasleek HHEko zentroetara jotzeko arrazoi akademikoak zeintzuk diren aipatu ditugu lehen, baina egia esateko, nagusi asko burua erabiltzeko ez ezik, etxetik irten eta beste pertsona batzuekin egoteko ere joaten dira zentroetara. Batzuek lagun-minak eta guzti egin dituzte.

Titulua derrigorrean atera behar izateak etorkizun beltza ekarriko die HHEko zentroei, Maria Puyren iritziz. "Nahiz eta batzuek titulua lortu nahi duten, kontuan hartu beharra dago 60 urtetik gorako ikasle gehienak ez datozela titulua ateratzera, baizik beste kezka edo helburu batzuk dituztela. Are gehiago, ez da oso logikoa ikasle horiei titulua ateratzera behartzea. Ondorioz, azterketak gainditu behar badituzte, gerta daiteke azkenean gogogabetu eta klasera etortzeari uztea". Batek daki etorkizunak zer ekarriko duen; bitartean, Txorierriko HHEko zentroak jarraituko du gazteei zein nahi duenari DBHn graduatzen laguntzen, eta nagusien jakin-mina asetzen.

"Etorkin batzuek nahiago dute hemengo titulua ateratzea, beren ikasketak bertan balioztatzea prozesu luzea eta garestia delako"

"DBHko titulua ateratzea dut amets"

DOLORES GÓMEZ RODRÍGUEZ | ikaslea



Dolores Marokon jaio zen orain dela 63 urte. Zazpi urte zituela Malagara mugitu zen, eta 20 urterekin Euskal Herrira etorri zen, lan egitera. "Ikastea gustatuko zitzaidakeen, baina...". Horregatik, irribarre handia bota digu galdetu diogunean zergatik dagoen HHEko zentroan. "DBHko titulua atera nahi dut; hori da nire ametsa". DBHko lehenengo-bigarren mailan dago eta apur bat zaila dela aitortu digu. "Ikasgaietan zerotik hasi garen arren, matematikan, esate baterako, nire adinagatik korapilatsua da hainbeste datu buruan edukitzea. Eta lehen banekizkien gauza asko eta asko ere ahaztuta ditut... Baina, tira, pixkanaka-pixkanaka saiatzen gabiltza. Informatika ikasten ere hasi naiz. Izugarri gustatzen zait!".

Ikastetxean urte batzuk daramatza eta esan digu hasieran amore emateko zorian izan zela. "Baina irakasleek animatu ninduten eta hemen jarraitzen dut". Etxekoan babesa ere eduki du, batez ere semearena. "Hau erronka pertsonal bat da, nire adinarekin ez

naizelako dagoeneko inora lan egitera joango... Gainera, etxean ez dut ezer egiten; ikasi eta burua erabiltzeaz gainera, beste pertsona batzuekin harremanetan nago bertan. Izan ere, lehen, etxea, senarra eta seme-alabak baino ez nituen buruan, eta bertan ikusi dut beste mundu bat ere badagoela, gauza asko ikasteko, hainbat leku eza-gutzeko... Esate baterako, azken irteera Baionara egin genuen eta oso interesgarria izan zen".

Autoestimu handiagoa duela dio, eta burua azkarrago dabilkiola. Kultura orokorreko programaren bat ikusten duenean ere hasi da gauzak loztzen. "Nik mundu guztia animatuko nuke hona etortzera. Gaur gauza bat ikasten duzula, bada, bihar beste bat... Abantailak baino ez ditut ikusten; gainera, adin eta nazionalitate ezberdinetako lagunekin zaude eta oso aberasgarria da". Argi dauka zer egingo duen DBHko titulua lortzen duenean. "Ospatu! Afaltzera joango naiz, ziur!".



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

HORTZ KLINIKA GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larumbatetan (aurreriko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implantak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



ZAMUDIO Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7

Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95

josuastorkiza@gmail.com

Susterrak Taberna

Morfzilak
barikuan eta zapatuan



Zamarripa Enparantza, 2 944069027
48170 Zamudio



ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK BATAIOAK BANKETEA JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Carrefour express

ORDUTEGIA
Astelchenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan



Restaurante JANA-JATETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Torrelarragoiti ind, P-7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Telefonoa 94 452 35 26
Tel/Faxa 94 452 06 64

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com



Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Ekitaldirik barriena bakarriketea izango da, domeka arrastian. Iñaki Urrutia eta J.J. Vaquero komikoei En bruto ikuskizuna eskiniko dabe. Aktore biak oso ezagunak dira, telebistan askotan agertzen diralako, *El club de la comedia* eta beste saio batzutan. "Orain arte ez doguz bere mailako bakarriketageak inoz ekarri. Behin antzeko gauza bat egin genduan, Gorka Aginagaldek antzetzutako *El txou de Patxi*, hain zuzen be, eta oso arrakastatsua izan zanez, beste bakarriketea bat antolatzea pentsau genduan", esan dabe Eguraldi Ona jai-batzordekoek.

Beste ekitaldi barria sokamuturra da. Azaroaren 15ean egingo da, goizean, Kultur Etxeko goiko patioan. Era berean, aitzateko modukoa da "Zamudio Izar" lehiaketa. 2014an lehen aldiz antolatu zan eta oihartzun handia euki eban. "Igaz jente dezentek hartu eban parte. Hasi-keran bost talde apuntu ziran, baina azkenean bederatzi aritu ziran. Aurten espero dogu lagun gehiagok izena emotea". Lehiaketea probalekuan egingo da.

Gainontzeko ekintzei jagokenez, karta txapelketek, kalejirek, dantza-erakus-

Kar-kar Martin jaiak

Umorea izango da nobedaderik handiena aurtengo San Martin jaietan, Iñaki Urrutia eta J.J. Vaquero aktoreek bakarriketea egingo dabelako. Nagusiek zein umeek primeran pasauko dabe jaietan, azaroaren 10etik 15era bitartean. Aurreko asteburuan Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokearen 30. edizinoa izango da.

taldiek, umeentzako jolasek edo pelota partidek osatzen dabe jai-egitaraua. Musikea be garrantzitsua izango da, eta besteak beste, Trikieta eta Hesian taldeak, Oihan Vega eta DJ Xaibor eukiko doguz entzungai. Eta zelan ez, mortzilak dastatzeko aukerea egongo da. Ekitaldiak Sabino Arana Goiri enparantzan, karrejuan eta Kultur Etxearen patioan egingo dira.

Jai-batzordean herriko kultur talde guztiek hartzen dabe parte, eta hori, zer esanik ez, oso aberasgarria da, alkarteetan atzetik jente asko eta eritxi desbardin

asko dagozalako. "Zamudiokoak oso parte hartzaileak dira eta herriko alkartei esker ospatu ahal doguz jaiak". Horregaitik, ez da harritzekoa jai-batzordeak herriko alkartei omenaldia egitea eta hareetako bik, Arroeta Mendi Taldeak eta Bertokok, pregoia irakurtzea aurtan.

Medikuaren agindua

Zamudioko herri osoak egiten dau bat urteko jai nagusietan murgiltzeko. Eta hori ez da batere erraza, jaiak azaroan egiten diralako eta normalean oso eguraldi txarra dagoalako. "Eguraldiak laguntzen badeusku, jaiak disfrutauko doguz; eta ez badeusku laguntzen, bardin-bardin pasauko dogu ondo". Ez dago atxakiarik jaietan parte ez hartzeko. "Aurtan medikuari galdetu deusagu, eta jai-egitaraua ikusi dauanean, kalera urteteko agindua emon deusku... (kar, kar)".

San Martin jaiak azaroaren 10etik 15era bitartean egingo dira eta betiko legez, aurreko asteburuan, azaroaren 7an eta 8an, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokak jai-giroa berotuko dau. Aurten 30. aldiz egingo da. Horregaz batera, III. Txokolate, Gozo eta Artisauen Azoka antolatu dabe, eta bertan hainbat postuk mota guztietako produktuak eskiniko ditue: pastelak, jaboia, narru eta egurrezko produktuak, jostailuak... Gainera, eskal produktuak dastatzeko aukerea egongo da, besteak beste gaztaia, txakolina eta Zamudioko artisau-garagardoa.

*Arroeta eta
Bertoko herriko
taldeek pregoia
irakurriko dabe aurtan*



Azaroak 6, barikua

–20:30: Pisu libreko idi probak. Sarrera doan eta aterpean.

Azaroak 7, zapatua

–III. Txokolate, Gozo eta Artisauen Azoka: pastelak, txokolateak, zerami-kea, narrua, jostailuak, jaboia....

–XXIII. Euskadiko Limusin arrazako abelgorrien txapelketea.

–11:30 eta 12:30: Euskal garagardo das-tatzea, UrbanBeer-en eskutik.

–12:00 eta 13:30: Border Collie artzain txakurren erakustaldia, Kotxozulo par-kean.

–13:00: Euskal hanburgesa eta euskal oilasko jana.

–20:30: Pisu libreko idi probak. Sarrera doan eta aterpean.

Azaroak 8, domeka

–Azoka: lorak, frutak, txakolina, ogia, eztia....

–10:00: XXX. Zamudioko Abere eta Nekazal Azoka eta XXIII. Euskadiko Limusin arrazako abelgorrien txapelketea.

Azaroak 9, astelehena

–20:30: Pisu libreko idi probak. Sarrera doan eta aterpean.

Azaroak 10, martitzena

San Martin Bezpera

–19:00: Txupinazo eta karameluak, Zamudioko enparantzan. Pregoia Bertoko Soinu tresnen eta Arroeta Mendi taldeen eskutik.

–Sanmartinetako kartel irabazleari saria emotea.

Jai-egitaraua



–Kalejira, Bertoko eta Gazte Elai taldeen eskutik.

–Mortzila-jana.

Azaroak 11, eguaztena

San Martin eguna

–11:00: Umeentzako parkea, Zamudioko Kultur Etxean.

–12:00: Mezea. Ostein, kopaua.

–16:00: Umeentzako parkea, Zamudioko Kultur Etxean.

–16:00: Karta txapelketea, Adintsuen etxean.

Azaroak 12, eguena

San Martintxu

–12:00: Mezea.

Azaroak 13, barikua

–20:00: "Zamudio Izar" lehiaketea, probalekuan. Gaia: filmak eta telesailak.

–21:30: Fanfarrea kaleetatik, Gureztat taldearen eskutik.

–23:30: Erromeria, Ohian Vega eta Trikidio taldearen eskutik.

Azaroak 14, zapatua

–11:00: Umeentzako jolasak, frontoian.

–11:30: Kalejira, Bertoko taldeagaz.

–13:00: Umeentzako sokamuturra, Kultur Etxeko goiko patioan.

–17:00: Zamudioko Hiru Bat dantza taldea, Kultur Etxean eta frontoian.

–20:00: Abesbatzak: Zamudioko Kamara Korala, Jorge Manrique, Otsailan eta Beltza Gorria abesbatzak.

–21:30: Fanfarrea kaleetatik, Gureztat taldearen eskutik.

–23:30: Erromeria, Zarpazo! a cicatriz, Hesian eta Trikidantz taldeakaz.

Azaroak 15, domeka

–8:00: Sokamuturra, Kultur Etxearen goiko patioan.

–10:30: Pelota, frontoian.

–11:30: Kalejira, Gazte Elai taldeagaz.

–17:00: Dj Xaibor, frontoian.

–19:00: J.J. Vaquero eta Iñaki Urrutia, *En bruto* bakarriketa, probalekuan.

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializateak:
Xafila-lanak
Zoruak

☎ 944522910 - 665703312 - 652772016

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lizenzia plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 34 49

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Alcázar
M^a Antonia Llodio

Txorierrito elorribidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Giro alaian eta musikaz blai

a: Bertoko

Hala ospatu dute Bertoko Zamudioko elkarteko kideek beren 20. urteurrena. Ospakizun ekitaldietan murgilduta urrian osoan zehar ibili dira, eta haiei Aiko taldearen eta Hiru bat dantza taldearen eskutik eman zieten hasiera, dantzan. Horrez gainera, Maurizia, Fasio eta Leon txotxongiloekin atera dira kalejiran, eta Kepa Junkera eta Sorginak taldearen kontzertua ere antolatu dute. Era berean, Kherau musika taldeak kontzertu intimo bat eskaini zuen elkartearen afarian, eta bertan urteurrenaren haritik prestatzen dabilzan dokumentalaren lehenengo zatia ere eskaini zen. Azkenik, oso bizia izan da urriko azken asteburua, CD bat grabatu dutelako. "Berrirori errepikatuko ez den esperientzia izan da eta taldekide guztiok egiten dugu oso balorazio positiboa. Emaizta entzuteko irrikan gaude. Baina adi! Ospakizunak aurrera darrai!"










SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13



ANTZERKIA



EDIPO
Compañía de Chaplín's komedia
(gazte zeln nagusientzat)
Azaroak 14, 20:00
Prezioa: 10 €



INSIDE OUT-DEL REVES
94' AG (2D)
Azaroak 1, 17:00



MARTE
(3D)
Azaroak 1, 19:30



HOTEL TRANSILVANIA 2
89' AG
Azaroak 7, 18:00 (2D)
Azaroak 8, 17:00 (3D)



LA CUMBRE ESCARLATA
119' (2D)
Azaroak 7, 20:30 (2D)
Azaroak 8, 19:30 (3D)



LOS MINIONS
91' AG (2D)
Azaroak 15, 17:00



AMAMA
103' EG-12 (2D)
Azaroak 15, 19:30 (EUSKARAZ)



LOS CINCO Y EL SECRETO DE LA PIRAMIDE
97' AG (2D)
Azaroak 21, 18:00
Azaroak 22, 17:00



TRUMAN
108' (2D)
Azaroak 21, 20:30
Azaroak 22, 19:30



ATRAPA LA BANDERA
91' AG (2D)
Azaroak 28, 18:00
Azaroak 29, 17:00



SPECTRE
(2D)
Azaroak 28, 20:30
Azaroak 29, 19:30

ZINEA

2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

“Errekonozimendua behar dogu lehenengo eta behin”

t/a: Itxaso Marina

TXARO ELORRIAGA FULDAIN | baserritarra

Eusko Legebiltzarrak Emakume Baserritarren Estatutua onartu barri dau. Besteak beste, emakume baserritarren eskubideak arautzea dau helburu, Gizarte-segurantzaren alta emon, ustiatuegien jaubetasuna euki, bardintasuna sustatu...

Nik uste dot hori guztia inportantea dala, gure lana ez dalako inoz errekonozitu. Emakumeok gizonak beste egin dogu lan beti; gehiago esango neuke nik, solotan ez ezik, etxean eta seme-alabak zaintzen be bai. Eta ordainetan gitxiago jaso dogu beti. Bada garaia emakumeok mar txan ipini eta gogor egiteko, merezidu doguna lortzeko.

Noztik daukazu baserriagaz loturea?

Betidanik. Gernikan ganadua genduan, eta Zamudiora ezkondu nintzanean bendejeagaz hasi nintzan. Amaginarrebak itxi eban eta nik jarraitu neban. Erriberako merkadura noa eta dana amaginarrebak egiten eban moduan egiten dot, bardin bardin. Etxeko generoa bakarrik daroat.

Txarok 54 urte bete barri dauz. Mungiakoa da, baina orain dala 30 urte Zamudiora ezkondu zan, Urtiñe baserrira. Hango soloaz arduratzen da eta begi bistakoa da bere lanaz benetan disfrutaten dauala. Berba egiten dauan eragaitik eta bere irribarre handiagaitik da, ziur asko. Urriaren 15ean Emakume Baserritarren Nazioarteko Eguna izan zan eta datea atxakiatzat hartu dogu, beragaz solasalditxua eukiteko.

Zuek ortuariak ekoizten dozuez; 3.000 metro koadruko lursaila da (7,9 gizelan, baserritarrek lehen esaten eben moduan; guk be apur bat ikasi dogu). Zein da zure lana soloan?

Soloaren pisua neuk eroan dot beti. Dana egiten dot: haziak, landarak ipini, traktoregaz lurra preparau, satsa bota, botikak... Senarrak arratsaldeetan, lanetik etorreanean, laguntzen eustan lehen, bai

na orain neu bakarrik moldatzen naz. Porruak daukaguz, tomateak, kipulak, zanoariak, letxugak, piperrak... dana kanpoan; ez dogu negutegirik. Ortuari lan egitea oso gogorra da, ez dago domekarik, oporrik... Gustetan ez bajatzu, hoba ez has tea. Niri pilo bat gustetan jat.

Lehen aitatu dozu zeuk: soloko lanaz gainera, etxekoa be egin behar.

Leku baten amaitzen dozunean, bes tean hasi behar da. Eta batez be domekak aprobetxau garbiketa handiena egiteko. Eskerrak orain bendejeagaz bakarrik bari kuetan eta zapatuetan joaten nazala; to





mate garaian, gehitxoago beharbada... Baina lehen egunero joaten nintzan. Goizaldeko ordu batean joan naz ohera askotan, 5:30erako merkatura joan, etxera etorri, bazkaldu, ordu erdi inguru deskantsau –gehiagorik ez, e!– eta martxan jarraitu.

Eta alaba bat be badaukazu.

Bendejeagaz lo egin barik joatea tokau jat askotan, baina gaztetan danagaz ahal da. Dana dala, alabea txikia izan danean amaginarrebearen laguntza euki dot. Ni plazan nengoan bitartean, bera alabeagaz lotzen zan etxean. Osterantzean, ezin da. Soloan lan egiten badozu

eta ume txikerrak badaukazuz, nire ustez, ez jatzu merezidu persona bat hareek zaintzeko kontratau eta ordaintzea. Ez da ateraten. Baina etxean laguntzea badaukazu, beste gauza bat da. Erraztasun gehiago egon beharko litzateke arlo horretan.

Zelan buztartu dozuz zuk soloa, etxea eta alabea?

Modu baten edo bestean moldatu naz beti eta ez dot inoz "hori ezin dot egin" pentsau. Egin behar da eta kitu.

Plazan, zure moduko andra gazte bat ikusten dabenean harritzen dirala badakigu...

"Ene, zaharragoa izango zinala espero neban", esaten deuste batzuek. Izan be, plazan oso jente gazte gitxi dago gaur egun. Normala da. Ez dago egun librerik, oporraldirik... Bajea hartzen badozu, nondik kobraten dozu? Eta soloan amaitzen dozunean, etxera sartu, argia biztu eta, tira, jarraitzera.

Hori argia ez bizteagaz konponzen da...

Ez, ez (kar, kar). Egin behar da.

Noz arte soloan?

Oraindino urte batzuk gehiago bai, ahal dan bitartean. Niri asko gustetan jat, bai soloko lana, bai bezeroakaz egotea.

Zelan doaz salmentak merkaduan?

Nire bezeroak daukadaz; edadekoak dira, jente gaztea gitxi etorten dalako. Baina hau ez da kantidade handia ekoizten dauanarantz; dozena bat letxuga badaukazuz, ba, ez eroan gehiagorik, ez dozuzalako salduko. Gabonetan-eta bo-

ladak dagoz, baina gero normaltxu saltzen da.

Zer eskatuko zeunke emakume baserritarrontzat?

Lehenengo eta behin, errekonozimendua. Nik beti, txikitan be, ikusi dot emakumeok gizonen baino gehiago egin dogula lan. Ze, soloko lana amaitzen zanean, gizona etxera sartu eta jesarten zan; emakumeak, ostera, jarraitzen eban etxeko gauzak egiten. Gizona ohera; eta emakumeak harrikoa egiten jarraitu... Bikote gazteak ez dakit zelan moldatuko diran orain, mutilek gauza gehiago egiten dabez etxean, baina, tira, ez dakit nik... Eta gero, gazteek baserrian jarraitzea gura badogu, uste dot erraztasun gehiago emon behar jakezala, eta euren eskubideak edozein langilek dituan eskubideakaz parekatu.

"Bada garaia emakumeok martxan ipini eta gogor egiteko, merezidu doguna lortzeko"

"Ez dot inoz "hori ezin dot egin" pentsau. Egin behar da eta kitu"



Unrtzagi Ibaia Kalea, 1
48160 - DEFRIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknika
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produzioaren Programazio teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrolleko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arioetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

t: Itxaso Marina / a: Goi-Alde

Abuztuaren 15ean, 50 urte bete ziran Goi-Aldeko dantzariak jente-aurrean lehen aldiz ekitaldia eskini ebela. Beraz, aurtengoa oso egun berezia izan da taldekideentzat eta taldetik pasau diran lagunentzat. Guztiak batu eta alardea egin eben; bazkaria be egon zan, eta erromeria. Halanda be, ekitaldi nagusiak urriko lehenengo asteburuan antolatu ebezan: saioa Erandioko Udal Musika Bandegaz batera, Donostia, Baztan eta Santutxuko dantza taldeak agerraldia, bazkaria, umeentzako antzezlan, erromeria Korrontzi taldeagaz... "Oso asteburu polita izan zan. Jentea pozik lotu zan eta ekitaldira konbidatu genduzan taldeak be sabore onagaz urten ziran. Laguntza handia jaso genduan Udaletik, Erandiogoiko Uri Buru Batzarretik, Goitiri alkartetik, tabernetatik eta herritarrengandik".

Dantza taldea Jose Luis Intxaurbek sortu eban, Erandioko gazteen artean euskal kultura zabaltzeko asmoz. Apurka-apurka, sendotzen joan zan. "Hasikeran, Bizkaiko dantza batzuk baino ez ziran egin eta halan urte pilo bat emon eben. Gero, 1980. urtea garrantzitsua izan zan, dantza barriak ikasi genduzalako, entsaizteko modu ezbardina, arropa barria... Horretaz aparte, taldearen bilakaerea gizartearen beraren bilakaeragaz batera joan da". Taldean 145 dantzari inguru dagoz gaur egun: lau urtetik 11 urte arteko 80 ume; 12 urtetik 17 urte arteko 30 gazte, eta 17 urtetik gorako 35 lagun. "Dan-

Urrezko dantzak

Mobimendu handiko urtea izaten ari da Goi-Alde dantza taldeko kideentzat. Izan be, aurten 50 urte bete dira taldea sortu zala, eta dantzariak urtariletatik hona daroe ospakizun-ekitaldietan murgilduta: hitzaldiak, sagardaotegi batera eginiko urtekerea, Zuberoako Maskaradea ikustera joatea, erakusketak, dantzen agerraldiak... Sorkunde Goi-kouria Goi-Alde dantza taldeko presidentea da eta berak kontau deusku urteurrena zelan urten dan, zein izan dan taldearen bilakaerea, eta zeintzuk bere asmoak.

tzariak baino gehiago monitoreak behar doguz. Gatxa izaten da dantzari nagusiek txikiei irakasteko konpromisoa hartzea. Talde askotan ordaindu egiten da dantzak ikastegaitik zein irakasteagaitik, baina gu oraindino ez gagoz filosofia horretan. Horregaitik da, beharbada, gero eta gatxagoa dantzariak irakasteko prest egotea".

Bizitasuna

Goi-Alde dantza taldea erreferentea da Erandion, eta herrian euskal folklorea bizirik mantentzeko egiten dabezan ekitaldiek ospe ezin hobea daukie. "Olenzero Eguna eta Inauteriak, esate baterako, oso bereziak dira guretzat". Erandiogoikoari be bizitasuna emoten deusie barikueta. "Dantzari guztiok batzen gara 18:00etatik 22:00etara, eta ondorioz jentez ganezka egoten da auzoa. Beraz, zer-

*Goi-Alde taldea
erreferentea da
Erandion, eta gaur
egun 145 dantzari
dagoz bertan*

bait antolatu nahi bada, barikuan izan behar, arrakastea garantizauta egongo dalako. Horrek guztiak eragin handia dauka auzoan".

Sorkunderen ustez, irakasleak dira dantza taldearen indargunea, dantzak irakasten urte asko daroezanak. Gabeziei jagokenez, azpiegitura faltea aitatu dau. "Erabilten doguzan eleizako lokalak txiki



Abuztuaren 15ean, dantzariak eta dantzari ohiak batu ziran.

*“Gure planteamentua
beti da berbera:
dakiguna mantendu
eta barria ikasi, betiere
hobetzeko asmoz”*

gelditu dira eta horregaitik eskatu deus-
guz Udalarik kultur zentro barriko gelak,
entseguak barikuetan bertan egiteko”.
Euskal dantzei behar besteko garrantzirik
emoten ez jakela be azpimarrau dau.
“Umeek beste ekintza batzuk egiten
dabez, gure entseguak baino lehentasun
handiagoa daukienak: kirola, hizkuntzak,
musikea...”

Herriko bizitza kulturean parte-har-
tze aktiboa izateaz gainera, Bilboko Aste
Nagusian be eskaintzen dabez ekitaldi bi:
bata, Irrintzi konpartsearen eskutik, eta
bestea, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak an-
tolatua. “Urduri eta arduratuta izaten gara
eta momentu bereziak izaten dira”. Ekital-
diak Euskal Herrian eta Estaduko hainbat
herrian ez ezik, atzerrian be eskini dabez,
adibidez Turkiako Marmariseko jaialdian
eta Szeged-eko International Country-
Wandering jaialdian (Hungaria).

Prest

Momentu berezi asko dagoz 50 urte-
an, oroimenean betiko lotzen diran horre-
etakoak. “Dantza egitera kanpora urten
ginan lehenengo aldia. 1984. urtean egin



genduan eta El Vendrell herrira, Tarrago-
nara, joan ginan. Bost aldiz egon gara ber-
tan. Austria, Turkia eta Hungariara egin
doguzan urtekerak be bereziak izan dira,
Andaluziara, Asturiasera, Valladolidera
egindakoak be... 25. urteurreneko jaialdia,

eta 45. urteurrenekoa. Azken horretan,
Goi-Alde sortu aurretik Erandiogoikoan
egon ziran dantzariak alkartu genduzan.
Egun hori zein aurrekoak oso politak izan
ziran. Ekitaldi nagusian gugaz dantzatu
eban emakumeak oso pozik egozan,
hareekaz gogoratu ginalako. Entseguak
be bereziak izan ziran eta momentu itze-
lak bizi izan genduzan hareen dantzari
garaia gogoratzuz”.

Goi-Aldeko dantzariak buru-belarri
ibili dira 50. urteurrena antolatzen eta
ospatzen, eta orain merezidutako atsede-
na hartuko dabe abendura arte. “Datorren
urtean ikusiko dogu, baina gure plante-
amentua beti da berbera: dakiguna man-
tendu eta barria ikasi, betiere hobetzeko
asmoz”. Beste 50 urte beteteko prest?
“Atzetik datozeanek baietz esan dabe.
Beraz, prest!”.

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategi-
ren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure
datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako,
helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

t: Gaizka Eguzkitza / a: Z.M.E.

Juanan Díez Bilbokoa da, baina Txorierriko neska bat ezagutu eta hona etorri zen bizi izatera orain dela bederatzi urte. Harrezkero, hasi zen harremanak lantzen bailaran: euskara ikasi zuen Txepetxa euskaltegian, Berbalagun proiektuan sartu zen... "Nire amama eta osaba bat perretxiko zaleak ziren eta haiekin batera hasi nintzen perretxikoen mundua ezagutzen. Geroago, Cantarelus Santutxuko taldearekin ere ikasi nuen pilo bat. Gainera, mendizalea naiz, eta zaletasun biak uztartu egin nituen. Hemengoek "el setero" esaten zidaten eta behin batean, lagun batek elkartearen egitea proposatu zidan. Eta horrela sortu genuen Zizegorri mikologia elkartearen", esan digu Juananek.

Guztira 55 bazkidek osatzen dute elkartearen. Kideak Txorierri osokoak dira, gizonezkoak zein emakumezkoak, eta adinari dagokionez, batez ere 40 urtetik gorakoak. "Gure estatutuetan garrantzi handia ematen diogu heziketari, batez ere gazte-enei zuzenduta. Ildo honi jarraituz, lan egin nahi dugu eskolarekin, umeei perretxikoak gerturatzeko. Haurrei irakatsi behar diegu inportantea dela perretxikoak modu jasangarri batean jasotzea, ekosistemari kalterik ez egiteko. Hau da, ale kopuru mugatu bat bakarrik batu behar da".

Era berean, elkartekideek aholkularitza zerbitzua eskainiko diete perretxiko zaleei. "Astelehenero, 20:00etatik aurrera, batuko gara lokalean, Aresti geletan, Zamudion. Guregana etortzen direnek perretxikoak ekartzeko aukera izango dute, eta guk esango diegu nolako perretxikoak diren, kaltegarriak diren ala ez... Guretzat oso interesgarria da jendea etortzea, perretxikoen gida egin nahi dugulako. Bertan, besteak beste, perretxiko bakoitzaren argazkia, izena, eta ezaugarriak jaso nahi ditugu. Perretxikoen errolda modukoa izango da eta euskaraz osatu nahi dugu".

Perretxiko goxoak

ZIZEGORRI MIKOLOGIA ELKARTEA

Zamudioztarrei "perretxiko ustelak" esaten zaizkie, baina hemendik aurrera, agian perretxiko goxoak esango diete. Izan ere, Zizegorri mikologia elkartearen sortu dute, eta horrek bailaran dagoen perretxikoetarako zaletasuna bulztatu nahi du. Euskara eta hedapena ildotzat hartuta, Zizegorrikoek perretxikoen gida argitaratu nahi dute euskaraz, eta perretxikoen inguruko informazio-bulego bat irekiko dute astero.



Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BIZI bakoitza





Bai, elkarteak euskara sustatu nahi du. "Perretxikoei buruzko informazio-iturriak anitzak dira, baina gehienak gaztelaniz daude. Gainera, nahiz eta euskaldun zaharra izan, perretxiko zale gehienek erdarazko hitzak erabiltzen dituzte: *niscallo* esaten dute, esnegorri esan beharrean. Pena da. Eta horregatik, hain zuzen ere, gure gida osatu nahi dugu. Gure ustez, ohiturarik ez dago eta hori aldatzeko materiala sortu behar da". Gida egiteko, Lagatzu Zamudioko euskara elkartearekin eta IZAE argazkilaritza Zamudioko taldearekin egingo dute lan.

Ultzama

Elkartea lehenengo urratsak ematen dabil eta urteko egitaraua oraindik ez dago erabat zehaztuta. Azaroan postu bat jarriko dute Zamudioko azokan, elkartearen berri emateko. Gainera, irteeraren bat egingo dute noizean behin, eta horietako batean Nafarroara joango dira. "Ultzama Euskal Herriko lehenengo Parke mikologikoa da. Han ere badute aholkularitza-zerbitzua, eta euren adituekin batera joango gara mendira, ibilbide batzuk egingo ditugu... Oso leku aproposa da eta bertan ikasi ahal dugu zelan joan mendira eta nolako arauak dauden perretxikoak batzeko, esate baterako".

Juananen hitzetan, Nafarroa eta Araba oso leku aproposak dira perretxikoak batzeko. "Biak dira basatiak eta euren basoak primeran babestu dituzte. Gainera, Gorbeia, Urkiola edo Soria ere badira toki ederrak". Era berean, Txorierrin ere badugu perretxikoak non batu. "Aspaldi-aspaldian harizti polit bat zen Txorierrin, baina gaur egun pinuak eta eukaliptoak ere baditugu. Beraz, esnegorriak topatu ahal

dira edozein pinuditan, Artxandan, adibidez. Eta onddoak nahi baditugu, Santa Marina ospitalearen ingurura joango nintzateke". Txorierrin onddoak, esnegorriak eta barregorriak dira gehien batzen direnak.

Perretxikoak batzeko, natura hartu behar da kontuan. "Perretxikoen eta arbolen arteko harreman zuzena dago. Perretxikorik gabe ez litzateke arbolarik egongo. Beraz, arbola zehatz baten alboan perretxiko mota zehatz bat dago. Hau da, onddoak nahi badituzte, ez naiz eukaliptoz betetako baso batera joango, harizti edo pagadi batera baizik. Ikasi behar da apur bat eta jakin non bizi zaren. Eta hori ere bada perretxikoak batzearen beste alderdi polit bat. Horretarako, bakoitzak aukeratu behar du bidea, bere kabuz edo gurea bezalako elkarte baten laguntzarekin".

Era batean edo bestean, Juananek aholku batzuk eman ditu perretxikoak batzeko orduan. "Ezagutzen ditugunak baino ez nituzke batuko, eta lekuari dagokionez, errepide eta fabriketatik urrun. Izan ere, perretxikoez ez dute sustrairik eta inguruan topatzen dutenarekin elikatzen dira; beraz, metal astunak ere hartzeko arriskua dute eta horregatik bada garrantzitsua non batzen dugun. Era berean, perretxikoak jasotzen ditugunean, ahalik eta lasterren eraman behar ditugu etxera, garbitu eta kontu handiz aritu, perretxikoez propietate guztiak ez galtzeko".

*"Perretxikoak modu
jasangarri batean jaso
behar da, ekosistemari
kalterik ez egiteko"*

*Txorierrin onddoak,
esnegorriak eta
barregorriak dira
gehien batzen diren
perretxikoak*

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALNATIA
Nafar Pedroa Cde. 511
COOK. SANASERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-batzariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBI-AUZOA 21
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Urrian, Ondarearen Europako Jardunaldiak izan dira eta aurtien burdina hartu da gaitzat. Larrabetzuk, Lezamak eta Deriok bat egin dabe jardunaldia-kaz eta, besteak beste, urteera gidauak eta berbaldiak antolatu dira. Larrabetzun, esate baterako, burdinak bertan euki dauen eragina errepasau eben eta Sarrikoleako burdinolaraino hurbildu ziran azpiegiturea ezagutzeko. Hurrengo orrialdeotan Larrabetzuk burdinagaz euki dauen loturea batu dogu; hurrengo aleetan Lezamak eta Deriok hartuko dabe protagonismoa.

t: Sabin Arana

Larrabetzu Uriaren sorrera-gutuean, lurralde mugak aitatzen diranean, hauxe irakurri geinke: “desde la ermita de Santa Cruz a la ferretería de Morga y Aretxabalagane”. Tarte horretan laba bat dago eta, basoaren jaubearen esanetan, hori karo-bi moduan erabili ei da. Ziur asko, halan izan da labea martxan egon dan azken urteetan, baina bere kokalekuak eta sorrera-gutuean irakurritakoak zer pentsau emon deuskue. Antzinako labeak hori baino txikiagoak ziran, ziur asko, eta baleiteke bakarrik karobi moduan erabili izana, baina inguruaren ezaugarriak eta sorrera-gutuean lekua mugarri lege zehaztu ebela kontuan hartuta, pentsau leiteke bertan baso burdinola egon zala.

Agirietan aitatzen dan hurrengo burdinola Sarrikolea da, 1488. urteko agirietan hain zuzen be. Baso banaketa baten gaineko dokumentuak dira eta bertan dagoan informazioa oso zehatza da. Sarrikolea burdinola lurraldearen deskribapenerako erabili eben, Sarrikoleako ubidea igaroten eban zubitxo aitatzen ebe-nean. Lekua Zubibarri moduan ezagutzen dogu, eta lehen Larrabetzuko lurraldeko hiru zatiren erdigune lege hartzen eben.

Baina Sarrikoleakoa ez zan burdinola bakarra garai hatan, Goikoolea eta Olatxu Zubieta burdinolak be baegozalako. Izan be, ulertuezina litzateke erreken tarte

bat tramankulurik gabe ixtea eta, gainera, gerora jakin izan dogunez, burdinola guztiak ugazaba berberak eraiki ebezan.

Aldi berean bi edo hiru erreko burdinolak lanean baziran, eta zama bat ika-



Medel eta Zeledon eleizako erretaula: Iñigo Martínez de Zugastiren garaikoa da, XV. mendeko azken urteetako; Gotiko flamenko estilokoa. Erretaulea burdinak euki eban inportantziaren adierazgarria da, eta Flandesegaz egiten zan komertzioa eta bertako artea be adierazoten dau.

tza egiteko bost zama egur behar baziran, eta kintal bat burdin lortzeko, bost zama ikatz gastaten baziran, imajinatu dagigun zenbat egur atera behar zan basoetatik. Burdinolaren hornitzaileak ugazabak ziran garai hatan eta baso komunaletan edo herri basoetan zuhaitzak landatzen hasi ziran, ganaduzaleen haserretarako. Argudiotzat baso larreak abereak elikatze behar ebezala erabili eben, eta zuhaitzak landatzeak oztipoa ekarrela. Alde biek Bizkaiko jaunarengana jo eben, garai hatan Isabel Katolikua Jaun-Anderea zala. Erantzuna bere senarrak emon eban: landu gabeko herri-lurrak, herri baso moduan erabilgarriak ziranak, guztion artean banatu ziran, bakotxak bere baso zatitik gura eban errentagarritasuna atera eion. Eta aitatu beharra dago abeltzaintzan ebilzanek be baso zati bat zuhaitzak landatzera zuzendu ebela, denporeak aurrera egin ahala, hori oso diru-sarrera garrantzitsua bihurtu zalako.

Burdina batez be lanabesak eta erakuntzan erabilten ziran untzeak egiteko erabilten zan; eta herrikanpo, itsasontziak eraikitze. Bestalde, gudarako trenak be behar ziranez, Bizkaiko lurraldean ipini zan arreteta eta Gaztelako erregeek argi euki eben Jaurerria bidelagun izatea



Urkuluko burdinolaren balizko irudia: Hau Aretxabalaga erreken parean egindako azken burdinola izan zan, eta Uriak berak eraiki eban. Alokairuan ipini zan eta dituturria izan zan uriaentzat. Burdinola honek antapara bi ebazan. Goikoak, ur-jauzi handia ebanak, mailu nagusia mugiten eban; eta besteak, hauspoa. Baina goikoak sobran eukanak behekoa elikatze balio eban; eta jakina, behekoak errotea be mugiten eban. Mendeetan zehar Iruzubieta deitu deusie (inguruko azpiegituran egozan hiru zubiakaitik. Irudia: Sara Estevez.

Olatxu-Zubieta burdinola: Zugasti leinuaren adar nagusiko sendiarena izan zan XIX. mendearen hasierara arte. Burdinolaren jardura nagusia burdinazko lanabesak egitea izan zan, eta XVI. mendean armak be egiten ebezan. XVIII. mendean errota bihurtu eben eta gure egunetara halantxe ailegau da.





Sarrikolea burdinolako presea: Irudian ikusi gein-ken moduan, presea egitura ona eta sendoa eukan. Presea desegin zan, aurrean eukan zubia eta ubidea edo errotaren ubidea desagertu ziranean, traba egi-ten ebalako. Dakigunez, zubi barria egin zan eta horretan begi zabalagoa eraiki zan. Ubidea Anguleri hegaletik igaroten zan Zubitalderantz, errepidea zaharkatuz.

komeni jakela. Era berean, Amerika eta Mendebaldeko Indiak konkistau izanak burdinaren beharra ekarri eban ontzigin-tzan eta armagintzan, baita lur barrieta-rako lanabesak egiteko be.

Hornitzaileak eta ugazabak

Nagusiak Zugastitarrak ziran, baina esan geinke Goikoolea eta Olea-Sarriko-lea familiakoak be burdinolei esker abe-rastu zirala. Halanda be, azpimarratu beharra dago lehenengoek, Zugastita-rrek, burdinolen jardueratik kanpo be euki ebela garrantzia. Izan be, basoak banatu ziranean, Martin Inigez de Zu-gasti Bizkaiko foru alkatea izateaz gaine-ra, Larrabetzuko eleizate eta uriko patroia be bazan. Azken titulu hori Gaztelako erregea zan Bizkaiko jaunak emon eu-tsan, jakina. Bestalde, bere alabak, Pas-kuala de Zugasti, Hordoño de Zamu-diogaz ezkondu egoanak, laguntzea emon eban Urkulu burdinola egiteko. Burdinolea 1500. urtean eraikitzen haste-ko asmoa euki eben, baina hainbat arazo tartean, 13 urte inguru itxaron behar izan eben lanei ekiteko. Burdinola XIX. men-dean saldu egin eben, uriko beste onda-sunakaz egin eben moduan, Indepen-dentzia Gudaren ondoren zorrak kitatze-ko, beharbada, edo haize liberalak eragi-nez.



Goikooleako burdinolaren balizko irudia: Burdinolaren ubideak eleizako fabrikaren lurak hartzen ebazan eta mendeetan zehar urteko lehen agoa edo laba-aldia eleizako fabrikari emoten eutsien. Irudian, martxan egon zan azken urteetan burdinolaren inguruan egozan leinu etxeak eta baserriak ipini doguz: ezkerretik eskumara, Amezaga eta Oloste, erdikoa eta goikoa; beheago ezkerrean, Plaza eta Zubiaurre; erdian, errotea eta burdinolea; eta eskuman, Goikoola baserria. XIX. mendearen lehen erdialdean bakarrik errotea gelditzen zan. Jatorrizko errotea etxebizitza bihurtu eben eta burdinola egoan tokian errota barria eraiki eben. Irudia: Sara Estevez.



Sarrikolea burdinolaren balizko irudia: Goialdean, Sarrikolea eta Olea leinu etxeak dagoz, ezkerrean, arragoa edo mena kaltzizatzeoko etxolea. Burdinolaren ezkerrean ikatz biltegia dogu, tailerra edo lantegia, mailu nagusia eta hauspoak; eskuman, antapara eta gurgilak. Errotea be ikusi geinke irudian, bere gurgilagaz. Izan be, burdinolek lehentasuna baeben be, ez eben ahaztu errotatik be atera ahal zan aprobetxamendua. Irudia: Sara Estevez.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

PATXI
KOOP
PRAXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Herriko pabiloia - 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 987 - info@paxi.com - www.paxi.com

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

t: Xabier Díaz Silvestre, BTEK-eko zuzendaria

SPRIk antolatutako "Basque Industry 4.0" jardunaldian izan gara. Hauek izan dira jardunaldiaren ardatzak: fabrikazio aurreratua, hark epe labur eta ertainera izango duen garapena, eta industrian eta gizartean edukiko duen eragina. Zenbait esparru aurkeztu dira etorkizunean garrantzitsuak izango direlakoan. Batzuk nahiko garatuta, beste batzuk oraindik garatzeko bidean. Batzuk etorkizuneko gakoetakoak izango direnak, beste batzuk ez... Esparru horien inguruko pilula batzuk batuko ditut oraingoan, eta hurrengo baterako utziko dugu haietan sakontzea.

Gehikuntza bidezko fabrikazioa

3D inprimagailuek material-geruza finak gainjartzen dituzte, objektu solidoak egiteko. Gehienbat plastikoa erabiltzen bada ere, egurra zein metalak erabiltzeko gai dira jada, bai eta bio-bateragarriak direnak ere, protesiak egiteko, adibidez.

Cloud computing

Sistema informatikoaren burmuina sarean jartzea da. Era honetan, informazioa eta horren kudeaketa hor gertatzen dira, eta gure ordenagailu, *smartphone* edo tabletak sistema horien bezeroak besterik ez dira. Segurtasuna, elkarlana, informazioaren trukaketa errazten dira era honetan, eta edonondik konektatu gaitezke eta lan egin.

Big data

Sareko zerbitzuak erabiltzen ditugunean, Google, Facebook edo Whatsapp direla edo beste horrelakoren bat dela, erabilera horiek era anonimo batean gordetzen dira datu base erraldoietan. Bestalde, kontuan hartu zenbat sentsore dau den gure inguruan. Webcam, termometro, kutsadura, hezetasuna eta abar neurtzekoak... Datu horiek guztiak gorde, prozesatu eta, noski, saldu egiten dira. Hori da *Big Data*. Imaginatu eztulerako xa-

Etorkizuneko pilulak, fabrikazio aurreratua

rabea saldu nahi duzula, ondo etorriko litzaizuke erretzaileak edo kutsadura handiko guneak zeintzuk diren jakitea, ezta?

Errealitate areagotua

Errealitatearen "gainean" informazio-geruzak gehitzea da. Wikitude aplikazioak, adibidez, mugikorraren kamerak jasotzen duen irudiaren gainean hainbat informazio jar dezake, irudian agertzen diren tabernen "gainean" dituzten eskaintzak, edo geltokiaren gainean hurrengo autobusak zeintzuk diren eta zenbat denbora barru etorriko diren, adibidez.

Ikusmen artifiziala - Errealitate birtuala

Kasu honetan, ikusmen artifizial zein beste baliabide baten bidez berria den errealitate bat eraikitzea da. Mundu birtualak benetako munduen kopiak izan daitezke eta, esate baterako, piramide baten barrualdean edo Eratzunen Jaunaren munduan gaudela simulatzeko erabil daitezke. Baita ikasteko ere. Adibidez, suhiltzaile batek errealitate birtualari esker ikas dezake zelan erreakzionatu behar duen egoera arriskutsu batean.

Elkarlaneko robotika

Zeregin desberdinetara egokitzen diren robotak, langilea non eta zertan ari den antzemateko eta elkarrekin lan egiteko gai izango dira. Errepikakorrek diren lanak berak egiten dituen bitartean, langileak balio erantsia dutenetan ipiniko du arreta.

Sistema ziberfisikoak

Aurreko teknologia guztiei etekina ateraz, edozein sistema adimentsu bihurtuko da. Ibilbide egokienak antzemateko gai diren gidaririk gabeko autobusak, pertsonak identifikatu eta garajera eramateaz gainera, autoa atera edo hurbilduko diguten igogailuak, tarifa elektriko eta beharren arabera martxan jartzen diren arropa-garbitzaileak...

Zibersegurtasuna

Eta bukatzeko, sistema horiek guztiak era seguru batean erabiliko direla bermatuko duten protokolo eta softwareak. Komunikazio segururik gabe, edonork har zezakeen autobus zein eraikin adimendu horien kontrola. Edo robotena! Edo informazio-geruza horiek era interesatu batean manipulatu helburu komertzialengatik, adibidez...

Azkeneko esparruetan ikusten den bezala, ez dago benetako mugarik horien eta beste batzuen artean. Beraz, azkeneko aholku bat: horrelako zozortan zuen burua espezializatu nahi baduzue, ez ahaztu besteen "berniz" puntu bat ere beharko duzula.





Baserri Antzokia: Arkadia barria

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Ipini dogu Baserri Antzokiko lehen harria, Gabriel Arestiren 1967ko berbek definitzen dabena: Euskal Harria.

Ez da egunero eraikitzen Baserri Antzokirik ze, ataza asko konpondu behar izaten da. Lehen harria jarri aurretik doze-na erdi urte igaro dira, krisiari aurre egi-ten, bazkideak bilatzen, proiektua egitu-ratzen. Zeozergaitik izan daiteke Txorie-rriko hau Euskal Herrian lehenengo Baserri Antzokia.

Bestalde, harri barruan gorde dogun mezurako testua Mikel Zaratek idatzia da, bere *Ipuin Antzeko Alegi Mingotsak* li-buruan:

Han, hor eta hemen, leku guztietan agertu ziran txoriak, euren abesti alaitsuz eguna eta izadia agurtuz. Garbi eta urdin ikusten zan zerua bere zabaleraren zabale-an, hango urrineko mendi-oste batetik irri-

barrez eta keinuka etorren eguzkiaren argi-tan. Muskerturik egoan lurra, berde-berde, zugaitzez eta bedarrez jantzita eta sakaba-naturik egozan etxe zurien teilatu gorritz ederturik. Mendiak, pagadiak, arestiak, artadiak, pinudiak..., baserriak, herriak, uriak... dana agertu zan ederkirio. Arkadia barri bat sortu izan balitz legez.

Eta Arkadia barria sortu egin da, eta sortu be BASERRI ANTZOKIAREN eraginez, txorien herrian, teknologiaren parkean, txakolinaren lurretan, euskaltzaleen au-zolanari esker, aro digitaleko utopiei aba-roa emoteko, 2015eko urriaren 30ean.

Arkadia barria, herri-utopiak, eskura-tu leitekez, baina horretarako ezinbeste-koa da euskaldunon indarrak batzea.

Debile principium melior fortuna se-quator; hau da, gaurko abiapuntu honi 2045 haretatik begiratzean, esan ahal izan daiteke: zer fortuna handia Baserri Antzokiarena!


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, knadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)


auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B 48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com


Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella
Mitxine 6, behea - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmialdiak: 670 995 885 - www.txorierri.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Perretxiko-lasaña

Osagaiak:

- 2 lasaña-xafla
- 500 g perretxiko
- Kipula bat
- Piper gorri bat
- Tomate bat
- Oliba orioa
- Gatza
- Piperbeltz beltza
- Gaztai arraspaua

Bexamela egiteko:

Litro erdi esne, hiru koilarakada gurin edo lau koilarakada orio, koilarakada bi urin eta gatza.

Prestetako area:

Lasaña-xaflak 12 minutu inguru ego-siko doguz. Bigun dagozanean, ur hotzetik pasau eta gordeko doguz. Zartagin baten orioa ipiniko dogu. Kipulea, piperra

eta tomatea txikituko doguz eta zartaginean erregosiko doguz. Eginda dagozanean, perretxikoak, xerratan ebagita, gehituko. Bigun dagozanean, jalgiten itxiko dogu.

Bexamela halan egingo dogu: kazuela baten gurina edo orioa ipiniko dogu, su eztitan. Gurina urtzen danean, edo orioa bero dagoanean, urina gehitu eta ondo nahasiko dogu. Apurka-apurka botako dogu, eragiteari itxi barik, harik eta ora homogeneo bat lortzen dogun arte. Gatza bota eta su eztitan eukiko dogu, 10-15 minutu inguru.

Laba-azpil baten lau lasaña-xafla ipiniko doguz, eta hareen gainean, perretxikoak eta barazkiak. Beste lau xafla ipini, eta hareen gainean, betegarri gehiago. Azken lau xaflak ipini eta gainetik bexamela eta gaztai arraspaua botako doguz. Labara sartu eta gainerreko dogu.



Etxeko sukaldaritza

Entsalada tropikala



t: Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Askotariko letxugak (boltsa handi bat)
- Melokotoi eder bat (xaflatan moztua)
- Ahuakate bat
- 200 g anana (zatitan moztua)
- 200 g Cherry tomateak
- Ahuntz-gazta (anana saborekoa)
- 100 g intxaur
- Oliba orioa
- Ozpina
- Gatza
- Modena krema

Prestetako area:

Erretilu handi baten letxugak ipiniko doguz, eta gainetik, gainontzeko osagaiak. Gustu apur batez ipiniko doguz, marrazkiak-edo eginez. Gatza, ozpina eta orioa botako doguz, eta Modena krema, entsaladea apaintzeko.

elekma
LARRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TURKIA

Isheerengo markak • Prestatutako onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Teorietan etorbidea, 25/3 N • 48180 Loro
T: 944 539 232
www.elekma.es

KURREGOITI
JATETXEA

Laurroeta etorbidea, 27
48180 Loro-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantekurregoiti.com

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainatze Berrak
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txarri etorbidea, 9 - Loroja | Asteaga orokina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Peluteria
Estetika

GOIALDE

94 455 81 44
Anguleri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia



Zer irakurri?

Ausarten kluba

Joserra (Lituraturia)

Egilea: Begoña Ibarrola

Marrazkiak: Pablo Auladell

Itzulpena: Miren Agur Meabe

Adina: bost urtetik aurrera

Gaia: tratu txarrak eskolan

Samuel handiagoa eta indartsuagoa zen bere gelako beste guztiak baino, eta uste zuen arazo guztiak indarrez konpontzen zirela. Zerbait agindu eta baten batek ezetz esaten bazion, mehatxu egiten zion ukabilarekin. Haur gehienek, beldurrez josita, Samuelen aginduak betetzen zituzten, Alanek izan ezik.

Goiz hartan haurrak txaloka ari ziren, eta oihuka ere bai:

–Gora Samuel! Aupa Samuel!

Samuelek besoak jaso zituen, garai-penaren seinale. Alan, berriz, lurrean

etzanda zegoen, beldurrez dardarka eta ezpainetik odola zeriola. Ogitar-tekoa kendu eta bere muturraren aurrean jaten ari zen Samuel. Alan lurrean zegoen, pentsakor. Bat-batean maisua agertu zen, zer gertatu zen jakin nahian.

Alan isilik geratu zen hasieran, baina gero, mendeku edo zigorraren beldur, honela esan zuen:

–Samuelek nahi gabe bultzatu nau eta erori egin naiz.

Alanek besteen burlak entzun behar izan zituen. Arratsaldean eskolatik atera zenean, triste zihoan etxerantz.

Egoera honi aurre egiteko, Alanek



Ausarten kluba asmatu zuen. Asmatu eta egin... Baina amaiera jakiteko, apur bat irakurri behar da.

Eskatu liburua zeure liburutegian. Interesgarria da, eta irakurri ondoren, aproposa etxean eztabaidatzeko.

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

TRIPPY
TABERNA

Espezialitatea:
GIN TONIC

Behoko kalea - DERIO

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Erakusketak

Sondika

- > "Exposición by Tom Hennley" Aritz Martinez Otxoaren argazkiak. Azaroaren 4tik 27ra, Erakusketa Gelan.

Derio

- > "Ertibil-Bizkaia 2015". Azaroaren 17tik 28ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > "Euskal zuzenbide zibila", Miren Olga Macia Olaeta abokatuaren eskutik. Azaroaren 10ean, 17:00etan, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > GoiEner. Azaroaren 23an, 19:30ean, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Loiu

- > Norbere gorputza ezagutzea eta min-biziari aurea hartzea (emakumeei zuzenduta). Azaroaren 10ean, 19:00etatik 21:00etara, liburutegian.

Derio

- > "Modu lasaian eta positiboan komunikatzen ikasi". Azaroaren 5ean, 12an eta 19an, 19:00etatik 20:30era; eta abenduaren 3an, 19:00etatik 21:00etara, Kultur Birikan. Izena ematea: azaroaren 3ra arte.

Larrabetzu

- > Dantza jauziak, Bizkargi taldeak antolatua. Azaroaren 21ean eta 28an. Izena ematea: bizkargidantzataldea@gmail.com.
- > Mindfulness tailerra aurkeztea, Azaroaren 12an, 19:00etan, Angulerin.

Ikuskizunak

Sondika

- > Hiru lumak, Rosa Martinez ipuin kontalariaren eskutik. Azaroaren 6an, 18:00etan, liburutegian.

Irteerak

Sondika

- > Ermua-Gorliz. Azaroaren 8an; izena ematea: azaroaren 4ra arte, liburutegian. Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua.

Zamudio

- > Kostaldera. Azaroaren 22an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Berreaga. Azaroaren 15ean, 09:30ean, eskolan; eta Arratzu-Mendata haritzia, azaroaren 29an, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n: meza, aurraskua, dantzen agerraldia... San Martin ermitan.

Kirola

Zamudio

- > Pilota partidak. Azaroaren 21ean, 16:30ean, frontoian.
- > Zamudioko III. Rallya. Azaroaren 27an, 18:00etan; eta 28an, 09:00etan.

Sondika

- > Fronten Txapelketa (Bikoteka). Azaroaren 15etik aurrera, Goronda Beko kiroldegian.

Musika

Derio

- > Santa Zezilia, Ipar-Alde abesbatzaren eskutik. Azaroaren 21ean, 19:00etan, San Isidro elizan.

Zamudio

- > Santa Zezilia, Zamudioko Kamara Koralarren eskutik. Azaroaren 22an, 11:00etan, San Martin elizan.

Lezama

- > Santa Zezilia. Poteo musikatua, Ekidazu abesbatzaren eskutik. Azaroaren 20an, 20:00etatik aurrera.

Larrabetzu

- > Ruper Ordorika. Azaroaren 22an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Bestelakoak

Larrabetzu

- > Poteo musikatua, Bizkargi dantza taldearen urteurrena ospatzeko. Azaroaren 13an, 19:00etan.

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
helix
pastelak
pastak

Mikel Zurro, 2 - 3. larrea • Sondika, 48150 • 94 453 25 19

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Gutxi-ekusiak, orokorrean
Auzokomunitateak
Masietako gutxi-ekusiak
Bulegoak eta lokalak
Oinezkoen garbiketa
Bateratutako
Zabur ikuspeia

Beside Plaza, 1 - B° Aldakoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autoocasion
IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTEA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungia etorbidea, 25
48160 DERIO

Derio

BEREZKO ARGIA DUEN MERKATARITZA



500 € NAHI?

5 txekerezkatu
ditugu Derio
merkatariekarte
kideen saltokietan
erosketak egiteagatik

Elkartekide diren 3 saltokitan egiten dituzun 10 €tik
gorako erosketengatik. Azaroaren 2tik abenduaren
26ra. Oinarriak saltokietan izango dira.



Derio Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkarte Profesionala

aneriak paraje!

Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio



Derio



Derio.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAKARAREN GARAPEN
ETA LEHIAGORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

ESKAINTZAK, UDAZKEN HONETAN IRABAZTEKO

BADAUKAZU EDUKI BEHARREKOA?

UR-GARBIGAILUAK

129€
TK
AURRERA



MOTOZERRAK

199€
TK
AURRERA



HAIZE-MAKINAK

199€
TK
AURRERA



Sito PONS

Motoziklismoan bi aldiz
munduko txapelduna

Bakarrik zure denda espezializatuan

STIHL®

VIKING®



DISTRIBUIDOR
PREMIUM

STIHL®

BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA

Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653

astikene@agrojardinastikene.com

www.agrojardinastikene.com